



GOIERRITARRA

**Lareon
turismo-gunea?**

**Zerainen baserriko
oilaskoaren eguna**

**Autobus zerbitzua
ofizialki inauguratua**

Ataundik Zeraina autobusez

Arg.: M. Albisu



2 karrete
Kodak Ultra
36 exp. 400 ASA
995 pta.



KARNETAREKO ARGAZKIAK

SISTEMA DIGITALA

**Argazkia zerorrek aukeratu
dezakezu**

6 argazki prezio berean

Eusko Label-duen Lumagorri baserriko Oilasko jaia aren 97

urriak

19



Goizeko 11,30tan

Izendatzea

Pedro Subijana sukaldaria
Eusko Label-duen Baserriko
Oilaskoaren Laguna

izendatua izango da

Bertsolariak

Joxe Lizaso
Joxe Agirre

Goizeko 12,30tan

Dastaketa

Burduntzian eta parrilan erretako

Lumagorri Baserriko
Oilaskoaren dastaketa

Eguerdiko 14,00tan

Bazkari herrikoia

Informazioa: telf. 800 100

Arratsaldeko 16,00tan
Bertsolariak eta trikitilariak

Arratsaldeko 17,00tan
Trialbizikleta ikuskizun
bikaina

Egun osoan zehar
Erakusketa

Kalitatezko Eusko Label-duen
Baserriko Oilaskoaren hazkuntza
prozesu osoa.

Prestaketa

Platera berrien prestaketa
Lumagorri kalitatezko Oilasko
honekin.



**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**

Argitaratzailea:

Goierritarak Kultur Elkarte

Dorre-etxea, 1

(Postetxe gainean)

124 posta-kutxa

20240 Ordizia

Tfnoa: 88 96 12

Faxa: 88 27 19

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Josune Agirre

Argider Mujika

Erredakzio Batzordea:

Jon Arano, Mikel Albisu, Joseba Telleria, Ane Martin, Loinaz Agirre eta Estitxu Imaz.

Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak:

Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Aitor Arrue, Urko Irastorza, Koldo Urrestarazu, Aitziber Murua, Josune Aldabe, Gabino Murua, Edurne Albizu, Rufino Iraola, Jon Arano eta Ana Cristina Olano.

Fotokonposizio eta maketazioa:
GOIERRITARRA.

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 6.700 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

HAMABOSTALDIAN NABARMEN



Joxe Ramon Elortza

Iñaki Murua

Mikel Mendizabal

Joxe Munduate

Aitor Sarriegi

Euskal Herriko Bertsolari txapelketan 5 goierritar

Urriaren 11n hasi zen Euskal Herriko bertsolari txapelketa. 5 bertsolari goierritar ditugu lehian:

● **Joxe Ramon Elortza** ormaiztegiarrak, urriaren 25ean, Ondarruko kanporaketan hartuko du parte. Hirugarren aldia du Txapelketa Nagusian. Laster beteko ditu 34 urte. 1995eko Gipuzkoako txapelketan finalen izan ziren zortzietako bat dugu.

● **Iñaki Murua** gabiritarren txanda urriaren 26an izango da, Iruñean. 1986 eta 1989ko txapelketetan finaleira iritsi zen. 41 urte ditu. Irakaslea da ogibidez.

● **Mikel Mendizabal** itsasondoarrak eta **Joxe Munduate** ataundarrak azaroaren lehen, Getxoko kanpora-

ketan hartuko dute parte. Mendizabal Gipuzkoako Ikastolen elkartearen dabil lanean, bertsolaritza sustatzea ardura hartuta. 1982an ipini zuen hanka lehen aldiz Txapelketa Nagusian. 1995eko Gipuzkoako txapelketan finalera heldu zen. Munduate oso gazte zela sartu zen Goierriko bertso-eskolan eta txapelketen munduan ibilbide luzea egindakoa da. 1993ko txapelketa nagusian aritu zen. 25 urte ditu.

● **Aitor Sarriegi** beasaindarra azkenik, azaroaren 2an, Zarauzko kanporaketan izango da. Informatika ikaslea da. Laster beteko ditu 21 urte. Bertso jarrietan hainbat sari eskuratutakoa eta batbateko sariketetan aspaldi plazaratutakoa.

BOTA BERTSOA



Alaitz Alustiza

Udazkena

Doinua: Zortziko handia

Hego haizea hosto erortze guztiak ere batera hori entzunaz urtaro honekin denok gogoratzen gera baserritarrak babarrun biltzen ta ehiztariak ehizera gure udazkenak ematen digu behar hainbeste aukera.

Mondeju beltzak edo zuriak ta gainera ardikia inork ezin du baztertuta utzi hain ederra den jakia urte guztiko sasoi onena dela esan leike ia ezin leioke inortxok jarri itxurazko aitzakia.

GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

*Eusko Jaularitza-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta*

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



Izpiritua eta gurutzada santua

Kare bizitan eskuak zurituak dituzten hauen eskuetan, herri honi espainolasuna inposatzen jarraitzeko karraxia irakurtzen da. ETA-ren biolentzia omen da herri honetan bai gaur, eta baita historian zehar ere herri hau zapaldu duena, eta hau unilateralki bukatuko balitz, dena ondo. Hipokritak! 'Ermuako izpiritua' bizirik omen dago gaur egun ere, eta neurri batean hala izan daiteke. Orain 20 urte ere, Franco hil zenean ez zuten denek txanpain edan; bi tren puntaraino bete ziren Goierri faxista honen hilotzari negar egitera. Hauak eta hauak ereindako hazi txarrek oraindik gure artean jarraitzen dute. Batzutan, sistema osoak ematen dien babesaren harrokerian, aurpegia azaldu ere egin gabe. Besteetan alderdi estatalen oinarriak osatzen. Listoenak, alderdi errejonalistetatik, espainiar proiektua garatu, eta Espainian komodo bizi. Baina hor.

Helburu berdin, baina izen desberdinetako Izpirituak izan ditugu herri honetan, historian zehar. 'Ermuako Izpiritua' España Una y Granderen bertsio moderno eta oportunistak da. BVE/GAL-en oinarriko izpiritua. 'Legion Córdor'-aren izpiritua. Franco, Primo de Rivera, Espartero edo Ahumadako Dukearen izpiritu berbera. Hau Espainia da, guztiok espainolak gara eta ez dela esaten duena eliminatu, etiko, moral edo fisikoki. Hau da orain, zuek, bakezale faltsuek probokaturiko egoera baten ondorioz, Ermuakoa deitu diozuen jokabidea.

Herri txiki hau desagertarazteko espainolek eta frantziarrek edozein bitarteko erabili dute eta erabiltzen ari dira; batez ere erahilketa fisikoa. Herri honek bere nortasun propioa aldarrikatu duen bakoitzean (momentu historiko desberdinetan era desberdineratuak, e.a.) espainolen eran-

tzuna hilketa eta tortura basatietan oinarrituriko gerra izan da. Gertuko gertakariak begira jarritz, Gerra Karlistadetan 40.000 euskaldun baino gehiago erahil zituzten bere herriaren nortasuna aldarrikatzeagatik. 60.000 lagun baino gehiago, Franco-k erahilak. Gernikan goiz batean 2 milatik gora euskaldun asasinatuak, Euskal Herriaren sinbolo zen herri batean jaiotzea beste kulparik gabek.

Gaur egunean inposatu zaigun 78ko Konstituzio espainiarrak ere edozein bitarteko, euskal disidentziaren aurkako heriotz zigorrak babestu egiten ditu. Ikusi bestela, bost egunetan jarraitzen ibili ondoren kotxe batetan afusilaturiko bi abertzaleren hiltzaile material eta politikoak, nola zoriondu eta kondekoratu dituzten: "Cetero y brillante".

Ermuako Izpirituaren benetako talantea ikustea kosta zitzaienek (nahiz ugariak izan Ezker Abertzaleko kide eta egoitzei egindako erasoak, edo euskaraz hitzegite hutsagatik kolpatuak izan zirenak), Madrillgo Las Ventas-en izan zuten adibiderik garbiena. Hemen ez da onartzen, Espainiaren batasuna, Gaztel hizkuntza, eta nagusiaren zakur zintzoa besterik. Hor kokatu behar da, 'Ermua/Plaza Oriente/Las Ventas-eko izpiritu' zaleoi hainbeste gustatzen zaizuen "Vascos si, ETA no" leloa; espainiarren esanetan makurtu, leialtasuna agindu edo "independentziaren errenuntzia espresua egiten duten" Vasco-espainolak, onartzen dituzten. Besteak, No: fisikoki desagertarazi (erahil, kartzeleratu, e.a.) edo bestela politiko, moral eta etikoki garaitu (espainol errespetagarri bat bezala erreinsertatu).

Kare bizitzan zuritutako eskutxidunok, jai daukazue. Herri honetan ez da normaltasun politiko eta sozialik egongo, benetako euskal demokrazia lortzen ez den bitartean. Nazio baten eskubideak alde

batetik, eta bertako abertzaleen giza eskubideak errespetatzen ez dituen Estatu bat ez da demokratikoa. Hemen argi gauza bat utzi behar: Euskal Herriak euskal demokrazia behar du. Hau da, euskaldunek soilik, eta ez beste inork hartzea Euskal Herria eta herritarri buruzko erabakiak. Adibidez, Suitzako sistema, Luxemburgon aplikatuko balitz, arrotza, inposatua, litzateke azken hauentzat. Ez luke balioko luxemburgotarren helburu nazional eta sozialak betetzeko. Horrez gain, eskubide minimoak ere errespetatzen ez dituzten, Bi sistema (frantses eta espainola) inposatzen baldin badira, horixe da Euskal Herriaren kasua. Guk, euskal herritarrok, gure demokraziaren alde borroka egiteko eskubidea dugu, frantses eta espainolizazio gurutzada guztien gainetik, eta hori da, eta ez beste ezer, egin duguna, egiten ari garena, eta eskutxuriek nahi ez badute ere, lortuko duguna.

Asier Imaz (Idiazabal)

Aralar magalean turismo-gunea?

Azken urteetan Euskal Herrian turismoa bultzatu eta sortzeko azpiegiturak sortzen ari da, herriarentzat aberastasuna sortzeko modu 'bakarra' bailitzan. Hau da Aralar magalean Lareoko urtegiaren inguruan turismo-gunea egitearen kasua.

Gaiak niri mina emateaz gain, zailtzarrik ez izan, ez nago berarekin ados. Hemen arazoa ez da proiektu jakin bat, niretzat gaia sakonagoa da. Azken finean, pentsaera postmoderno batetik sortutako filosofia bat da, beraien kontsumo pentsamoldetik, hala nola beraien ezjakintasun ausartetik, beraiek dira denentzat den planak egiten dituztenak. Beraie gutxi axola zaie bizitzak, herrietako jendea, non proiektuak proiektatzea pentsatzen duten, azken finean bi-

latzen duten bakarra beraien bizi filosofia aurrera eramatea da. Hau dena, ezagutzen ez duten eta batere axola ez zaien ingurune batean erabateko eskuhartzea da.

Plana aurrera eramateko lanpostuak sortuko dituzten argudioak baliatzen dira beti. Inork ez dezala pentsa lanpostuen goxokia hain polita denik. Bestela, ikus dezatela Iparraldean sektore honetan lanean ari direnek dituzten kontratu motak. Beraien egoera erabat eskasa da. Hau horrela izanik eta iritzia hau izateko eskubidea onartuaz, lanpostuak sortzeko beste modu batzuk daudela ere pentsatzen dut, eta denok saiatu beharko ginatke ideiak sortzen.

Lareoko borden proiektua onartuko bagenu, ez gara lan konkretu bat bakarrik ari babesten, edo 'gune' an bizitzera turistak iristea, ez. Ingurunean izan dezaken inpaktoa izanda ere, inguruntetik bizi diren ganaduzale eta beste pertsonak izanda ere, hau dena izanda ere, nere ikuspuntutik, jokoan dagoena herriaren etorkizuna da, gure iragana, oraina eta geroa dugu jokoan. Denborarekin, gure ohiturak, gure arteko harremanak, urteek landutako izaera, hau dena ahultzen joango da guztia galdu arte. Herria herriarena eta herriarentzat da; kanpokoekin abegitsuak izateak utzi gabe, lehenengoak gu gara eta ez beste inor. Gaia oso garrantzitsua da, asko baitugu jokoan. Nik esango nuke, herri bezala izatea dugula jokoan.

Proiektua aurrera eramatearen erabakia, nahi duten guztiek iritzia emateaz gain, gaia serioegia dela deritzot erabakia Udalean dauden indar politikoaren korrelazioaren arabera hartzeko. Horregatik, gaiaren garrantziaren aurrean, erabakia Udalak ez dezala hartu proposatzen dut, baizik eta herri guztiak kontsulta herrikoi baten bitartez.

*Juan Karlos Ioldi Mujika
(Murziako espetxetik)*

TXANDAKA

Langintzak

Gauza bakarra egiten dakienak morroia edo neskamea behar izaten du aldamenean. Besteen laguntza izatea guztioi gustatzen zaigu, baina laguntzailerik ez badugu, salduta, zer egin ez dakigula geratzea pobrea eta triste da.

Egunero amak prestatutakoa jaten duenari, egunen batean, lanetik etxeratu eta ama falta delako, etxe guztietan egoten den atun potea zabaldu eta, noski, ogia erosi behar zuela burutik pasa ere egin ez zaionez, ogirik gabe jan behar duena ez al da 'inutila'?

Beste maila batean, lanari buruz hitz egiten dugunean, gutxi ezagutzen ditut duten lanarekin, irabazten dutenarekin erabat konforme daudenak. Aldiz beti bestena ezin hobetzat hartzen dugu. Norberarentzat aberasgarri dela uste dudalako, alde batetik, eta besteen ofizio eta lanen uste asko ustelak direla frogatzeko, bestetik, langintzen aldaketak proposatuko nituzke, gizartea beste era batera antolatuta, noski. Adibidez, 2 urte emango nituzke bulego batean idazkari, beste bi irakaskuntzan, kale garbitzaile, tabernari... Probatu eta gero konturatu nintzateke, benetan, besteen soldatak ere ez direla hain onak, lana ez dela uste bezain polita...

Irakaskuntza munduari helduz, adibidez, urtea joan eta urtea etorri eskolaurreko haurrekin lanean ari den irakaslea erretxindu eta nazkatuta egotea da normalena, eroso egon arren. Ikasleen kalterako izango da hori, beraien jasan beharko baitute. Eskolaurrean lanean aritu dena LHko hasiera zikloan jartzen badugu, prestaketa lan ikaragarria egin beharko du eta, lana ondo egiteko asmoa badu behintzat, intentzioa jartzen badu, birziklatu eta ikasi egin beharko du. Izerdiak izerdi eta kostuak kostu, hurrek eskertuko diote gehien bere saiakera eta, noski, pertsona bezala ikaragarri aberastuko da.

Joxepa Madariaga



Meningitisaren aurkako txertorik hartu al duzu?



Aritz Arrieta
15 urte, ikaslea
zegamarra

Bai. Jendearen beldurra kentzeagatik jarri dute txertoa, baina ez omen dago meningitisa harrapatzeko arriskurik.

Amaia Lekuona
15 urte, ikaslea
lazkaotarra

Bai. Meningitis ez hilgarrirentzat txertoa eman digute, hilgarriaren aurkako ezer ez dago. Oso zaila da kutsatzea. Baina beharrezkoa da hartzea.



Imanol Mingo
9 urte, ikaslea
lazkaotarra

Bai, besoan eman zidaten. Min piska bat eman zidan eta mareatu ere egin nintzen.

Dagoeneko BEASAINEN



EZIN HOBEAK

- Jartzeko errazak
- Isolamendu termiko eta akustikoa
- Hermetikotasuna
- Energi aurrezpena



**VENTANAS
SAN MIGUEL**

Mendeurren Etorbidea, 2 (sarrera Nafarroa Etorbidetik) ☎ 88 91 53 BEASAIN



MUJIKA



BEASAIN ☎ 88 74 00

ZINEA

GOIENIZ:

'Balas sobre Broadway'. Urriak 23, Usurbe Antzokian, 21:00etan.

BEASAIN:

'Speed 2'. Ostirala 17: 22:15; igandea 19: 16:45 - 19:30 - 22:15; astelehena 20: 19:30 - 22:15.

'El negociador'. Larunbata 18: 19:30 - 22:15.

ORDIZIA:

'Bean'. Ostirala 17: 22:15; igandea 19: 16:45 - 19:30 - 22:15; astelehena 20: 19:30.



'Doberman'. Larunbata 18: 19:30 - 22:15.



'Balas sobre Broadway' Woody Allen (EEBB, 1994)

Cheek izeneko bizkarzaina antzezlan baten entsaioak jarraitzen ari da, nagusiaren neska zaintzen duen bitartean, honek dohain apurrik ez izan arren aktorea izan nahi baitu. Entsaioak ikusi ahala gure zelataria aldaketak proposatzen hasiko zaio egileari, honen onespenera, ustekabea obra erabat berri eta arrakasta izugarria lortuko duelarik.

Argudio harrigarri honen bidez Woody Allenek antzerkiaren garrantzia azpimarratzen du antzezleen lanaren gainetik eta berriz ere, gauza serioak era atseginean kontatzeko duen ahalmena agerian uzten du. Komedia borobil hau Allen onenaren islada da, bere ohiko erretolika luzeak zertxobait baztertuta, irudimenez barre eragiten diguna.

MUSIKA

ORDIZIA:

Urriak 17, Marta Almajano (sopranoa) eta Zefiro Ensemblea, Barrena Kultur Etxean, 19:30etan, Bach musikaldiaren barruan.

Urriak 18, Peñaflorida Kaperak, Eliz Parrokian, 20:30etan, Bach musikaldiaren barruan.

ORMAIZTEGI:

Urriak 17, Errenteriako TC-10 taldearen kontzertua: heavy rock. 22:30etan, Itxune tabernan.

Urriak 24, Hernaniko Etzakit taldearen kontzertua: triki-pop. 22:30etan, Itxune tabernan.

IKUSENTZUNEZKOAK

BEASAIN:

Urriak 29, 'Nepalen aurpegi ezkutua' Amaia Elosegiren eskutik, Udaletxeko Batzarre aretoan, 19:00etan.

LAZKAO:

Urriak 21, 'Itsasoari begira' Joxe Ramon Agirre 'Marron'-en eskutik, Maizpide euskaltegia, 21:00etan.

ORMAIZTEGI:

Urriak 20, Javier Juanezen 'Gipuzkoako jaiak udan', Kultur Etxean, 19:30etan.

Urriak 21, Felipe Uriarteren 'Pamirren bihotzean', Kultur Etxean, 19:30etan.

Urriak 22, Patxi Sanzen 'Euskal Herriko mitoak atzo eta gaur', Kultur Etxean, 19:30etan.

HITZALDIAK

BEASAIN:

Urriak 12, 'Bidai agentziak eta atzerrian egiteko ikastaroen agentziak' hitzaldia, Asmuben, 15:30etan.

LAZKAO:

Urriak 21, 'Emakumearen tratua txar fisikoa eta psikikoa' hitzaldia Diana Saucoren eskutik, Udaletxeko Batzar Aretoan, 17:00etan.

AZKEN 2 TXALET SALGAI

IDIAZABALEN

PREZIO INTERESGARRIA

☎ 18 71 00

ERAKUSKETAK

BEASAIN:

Urriaren 26tik azaroaren 9ra bitartean, VI. Aire Zabaleko Pintura lehiaketan aurkeztutako lanen erakusketa, Usurbe Antzokiko erakusketa-aretoan

IRTEERAK

Ataungo zikloturistak:

Urriak 19, Ataun - Lizartza, 60 km.

Argazkigintza eta magia ikastaroak

Beasaingo Udalak antolatutako argazkigintza eta magia ikastaroak izango dira azarotik aurrera. Izena emateko epea urriaren 27an irekiko da (88 50 51). Argazkigintza ikastaroa astearte, asteazken eta ostegunetan izango da, 19:00etatik 20:00etara. Iraupena 26 ordukoa. Matrikula: 4.000 pezeta.

Magia ikastaroa azaroaren 3, 4, 5, 18 eta 30ean izango da, 19:30etatik aurrera. Matrikula: Beasaingoek 500 pezeta; gainerakoek 1.000 pezeta. Materialaren kostua beste 500 pezeta.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Arriola (Plaza Nagusia - Ordizia).

Urriak 18 - 19: Jauregi (Santa Maria, 2 - Ordizia).

25 - 26: Cuesta (Nafarroa etorb., 39 - Beasain).

Urriak 26, Ataun-Amezketak, 52 km.

Beasaingo mendizaleak:

Urriak 19, Nafarroa Oinezera: Tafallara.

Urriak 26, Ezpeletxe-Mondarrainera.

Ordiziako mendizaleak:

Urriak 19, Euskadiko Beteranoen martxa.

Urriak 26, Ordiziako Euskadiko XXV. Beteranoen martxa.

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Etxebizitzak:

☐ Lazkaon pisua alokatzen da. 18 04 26.

☐ Ordizian Arantxa taberna traspasatzen da. Bezero ugari, erdialdean kokatua. Deitu 88 72 46 telefonora.

Salerosketak:

☐ Txuri-beltzeko telebista salgai. Prezio onean. 889814. Eguerdietan deitu: 1.00etik 2.00etara.

☐ Salgai dauzkat Reflecta proiektorea, Amnistiaren sinboloa duen forro polarra eta irratikasete bat. 8822,8.

☐ Karrerako txirrindua salgai. 88 51 39.

☐ Beasainen 1961-1963 bitartean atera zen 'Loinaz' aldizkariaren ale hauek erosiko nituzke: 2, 4, 5, 12, 13, 14 eta 15. Asteburuko bazkalondoetan 88 80 68.

Lana:

☐ Esku soinuak konpon-tzen dira. Marka eta modelo guztiak. 47 00 01. Arratsaldeko 5.00etatik 7.00etara, ostegunetan ezik.

☐ 2 neska euskaldun prest daude zaharrak, haurrak eta minusbaliatuak zaintzeko. Esperientziadunak. 882589.

Bestelakoak:

☐ Ostiela! euskal kultur al-dizkari gaztea Goierriko puntu hauetan dago salgai: Ordizian: Mujika eta Baga-Biga liburudendetan, Leizea, Orlegi eta Herriko tabernetan, Gaztetxean eta Ordizia Bideo Klubean. Beasainen: Mirentxu liburudendan eta Ñañarri eta Arrano tabernetan. Lazkaon: Gerriko liburudendan eta Gerriko tabernan. Zaldibian: Joxepane tabernan. Idiazabal: Odei tabernan.

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a

☎ 88 17 00 - 88 17 04

BEASAIN



MUJIKALIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19

☎ 88 11 94

ORDIZIA

IKASTEK AKADEMIA

KALITATEA eta PROFESIONALITASUNA

97-98 IKASTURTEA

✓ ESKOLA LAGUNTZA

- ☐ OHO, DBH, LOGSE, UBI, LH, IEE.
- ☐ Banakako atentzioa
- ☐ Talde txikiak

✓ UNIBERTSITATE MAILA

- ☐ Kalkulua eta kontabilitatea
- ☐ Estatistika
- ☐ Matematika
- ☐ Fisika eta Kimika

HASERA: URRIAK 1

INFORMAZIOA eta MATRIKULA:

☎ 16 01 20

Joan Iturrlalde, 5 BEASAIN



Jon Mikel Arano
('Ostiela!' aldizkariaren
koordinatzailea)

*"Geroko
gerotan ez dago
geratzerik, ez eta
atzoko, atzekotan
atzeratzerik.
Gura duzuna,
gura baduzu,
orain gura izan
behar duzu.
Biharko utzi
gabe. Orain edo
sekula ez".*

Txikitan, kamino bazterre-ko petrilean eserita, auto-en kolore, marka edo matrikula gehiago zeinek asma (zuhur eta merke asko) jolasten genuenean, zirkoa pasatzen zen errepidetik. Itsasondo ez zen mapetan agertuko, baina N-Itik pasa behar izaten zuen "mundu guztiak". Eta, era guztietako autoen paseak irudimena eta eza-gumena ere ematen zigun. Errusiarrak, amerikarrak eta beste hainbat zirko-karabana pasatzen ziren. Zirkoko kamioztarrek, gainerakoez gain, lilura bat sortzen zuten gudan.

LEHENGUSUAK —gu baino ahal-dunagoak ziren, gainera-eta— joaten ziren, ikusi eta kontatzen zizkiguten hango patrifiliak (hika, guk zuka). Lagun erdaldun baten etxean telebisioa ikusten genuen (beharrezko elektrodomestikorik ez zuten izango akaso, baina hori bai, telebista bai; guk zergatik ez genuen telebistarik, erdal kulturaren erasoaren aurrean inpermeableagoak ginenekoa eta kontu horiek beste artikulu baterako), eta telebistan ere azaltzen ziren zirkoko azainak. Beti joan nahi izan genuen zirkora, beraz. Norbaitek eraman bagintu... gu mutilak!

HAUNDITUTAKOAN joango gine-la, esango ziguten. Edo geurok esango genion geure buruari. Eta sinestu (soldaduskako adinerako seguraski morrontza hori desagertaraziko zutena ere sinistu genuen moduan, bestalde; eta horra montatu diguten hainbatetako beste "zirku" bat!).

HANDITU GINEN-edo eta zirkora joateko aukerak izan genituen; kapitalera soilik ez, baino herrietara ere hasi ziren etortzen zen-

Nahi duzuna, orain

bait zirko; telebistan ez ezik, gertutik ikusteko aukera ere bagenuen. Alimaleko animalia haiek, e.a. Baina iada gure gustuak aldatzen hasiak ziren eta beste gauza batzuetan erreparatzen genuen. Eta sekula ez gara zirko baten karpa baten pean sartu. "Bat eginik", euskararen aldeko kanpaina hartan ere zirko bat antolatu zen, edo antolatze-ko asmoak ere baziren; ez naiz oso ondo gogoratzen (horrek esan nahiko du zahartzen ari naizela, orain dela 25 urtetakoak gogoratu eta atzokoak, duela 8koak ahaztu bazaizkit...).

DAGOENAKO ez gintuen kilikatzen. Izan ere 20tapiku urterekin edota dagoeneko hogeita-margaturik zaudenean (eta umeen aitzakiari ez duzula) ez baitzaude zirko bateko funanbulista, titiritero eta pailazoen filigranetan atentzio guztia jartzeko moduan. Edo ez zaitu asetzen, auskalo zergatik. Eta, hara non, duela gutxi, etxe atarian ia izan dut zirkoa (bertan, kutreago), eta gutxiago gustatu zait zenbait animaliri ematen dizkieten txarrak eta duten itxura petrala ikustea... Urte askotako berandatzarekin etorri zitzaigula zirku-a, alegia.

BESTE GAUZA ASKO bezala, gustoko ez dudana zokoren batetara kondenatuko nuen. Beranduegi zen niretzako. Txikitan zirkora joan ez nintzelako traumatizaturik ere ez nago. Ez da hori. Bai-

na guzti horrekin —eta beste asuntu askorekin—, benetan zer nahi ez dudana eta zer nahi dudana ikasi dut. Nahi dudana, orain nahi dut, eta egin nahi ditudanak orain egin beharra dauzkatzat, ze orain egiten ez dudana sekula ez baitut egingo, seguruenera.

ZERTARA NATORREN guzti hau esanez? Nazka-nazka eginik nago honi eta hari erantzunez, idazle izan nahi dutenei, komiki satiriko bat montatu nahi luketenei, etabarri, halako edo holako proiektu miwesgarria dutela, beren bizitzako istorioak eta sakonean idatzi nahi luketena dutela, inork baino hobeto egingo luke-teela zine-gidoi horixe, eta plazerra emango liekeela idazlan horrekin, gustora burutuko luke-teela laburmetrai bat...

ETA, ZER? Ba, harrigarria!, ez dutela burutzen...! Eta arnas txikiagoko lanik ere ez dute hartuko, entrenamendurako, besterik ezpada. Orain ondo ordainduta-ko enkargua edo lana baitute, zerbait segurua, lanpostu finkoa, eta, jakina, ohizko gastuak, etxe-ko kreditua, umeen ikastola, bideoaren epeak... Eta baldintza hobeagotan egongo direnerako atzeratzen dituzte euren proiektuak, aurreragorako, bihar-etziko egunerako...

BIHARKO iragan zen ia. Duela hamar, hogeitamar urte pasa zen. Denok atzeratu izan dugu nahi genuena, konturatu garen arte lan egiten, eseri eta idaztea, mogitzea zela arazo bakarra. Geroko gerotan ez dagoe-la geratzerik, ez eta atzoko, atzekotan atzeratzerik. Gura duzuna, gura baduzu, orain gura izan behar duzu. Biharko utzi gabe. Orain edo sekula ez.

Argitarapen honen enbargoa agurtzane.

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación

ERREZETA



Gorka Izagirre
Ostatu jatetxea
Mutiloa

TXERRIKUMEA MUTILOAR ERARA

Osagaiak: txerrikume txiki bat, olio, gatz, koñak-a eta ardo beltza.

Txerrikume osoa labean sartu olio eta gatz piska batekin. Suabe xamar eduki barrua egiteko, ordu bete pasatxo.

Eginda dagoenean, su bizian jarri, azala gorritzeko.

Ardoa eta koñaka bota, eta sua eman.

AHOLKUA

Estetikaren garrantzia

Horregatik gure bizitzaren zati bat estetika-ren teknikak ikasteaz arduratzen garen profesionalok, jende askoren bizitza sozialari eta profesionalari mesede egiteko aukera daukagu gure eskutetan.

Gaur egun adina, estresa, elikadura txarra, kutsadura, alkohola, eguzkiak... sortutako inestetismoak zuzendu eta arintzeko gai diren instrumentuak eta teknologia daukagu. Estetikak bezala gutxi eskaizten eta laguntzen

dute pertsonak hobeto senti daitezen.

Uda bukatuta, gomen-dagarria da aurpegiko nahiz gorputzeko azalaren garbiketa on bat egitea, peeling on baten laguntzaz. Ezkatzatzea eta azalean sartzen diren zelula guztiak kenduko ditugu. Ondoren geruza edo maskarila hidratatzailea jarriko dugu eta horrela azal urtsua??? lortuko dugu, hotzak eta haizeak urte sasoi honetan hainbeste zigor ez gaitzan.



Ana Cristina Olana

Siboney estetika zentrua

Estetika, neurri handi batean azken urteetan garatu den espezialitatea da. Kanpoko itxurak giza harremanen barruan, oinarritzko garrantzia dauka gaur egun gure gizartean.

Ia denok gaude gustatzen ez zaigun estetikoa ez den zerbaitek jota. Azala zimeldua, zahartua, zimurrekin, zelulitisa... Baina era berean itxura garbia azaldu nahi dugu, gazteagoa, hori guztiarekin osasun onaren itxura ematen saiatuz.



UNTXUNDEI
garajea

OSINALDE
karrozategia

☎ 88 28 21 - 16 07 06
ORMAIZTEGI

Arkupe
tapizegia

Tapizeak - Ohe estalkiak - Endredolak
Mantak - Malndireak - Mahal olhalak
Toallak - Gortinak eta osagalak

J. M. Zeberio J. M. Barandiaran Plaza
☎ 88 00 84 **ORDIZIA**

Iues rothers
BEASAIN



Siboney

ESTETIKA ZENTRUA

Senpere Merkatal Gunea ☎ 88 15 50 **BEASAIN**

- ✓ Aurpegia gaztetzea
 - ✓ Automakilaje ikastaroak
 - ✓ Depilazioa
 - ✓ Tratamendu mediku estetikoak
- KONTSULTA EZAZU**

Juan Mari Olano HBko Mahai Nazionalakidea Madrilen epaitzen ari dira

Juan Mari Olano gaintzarra, Herri Batasunaren Mahai Nazionaleko kidea da, eta egunotan Madrilen ari dira epaitzen, beste 22 kiderekin batera. ETA talde armatuarekin kolaboratzea leporatzen zaie, hauteskunde kanpainen ETAK aurkeztutako Alternatiba Demokratikoa deritzon bideoa erabiltzeagatik. Epaiketa hasi aurretik egon ginen Olanorekin.

- Zergatik epaiketa?

- Mahai Nazionalakideen aurkako epaiketa hau, epaiketa politikoa da. Herri honek urte asko daramatza espiral batean sarturik, nolabait ere aurrera egiteko gaitasunik gabe eta etsipenaren sententzia bultzatu nahi duten jende asko dago, instituzioetatik ere bultzatzen da, ez dela posible beste egoera bat herri honetan, eta hori gezurra da. Kontestu horretan Euskadi Ta Askatasunak Alternatiba Demokratikoa plazaratu zuenean, ezker abertzalean izugarritzko pozez eta gogoz hartu zen, mundu guztiak ulertzen duen formulazio bat delako.



Horrekin batera, euskal herritarren gehiengoak ere berdina jaso zuenaren sententzia genuen. Formularen baliagarria da, egungo gatazka politikoak dituen biolentzia espresioak gainditzeko, eta beste aldetik, euskal herritarrei hitza ematen dielako, eta Euskal Herriaren ezagutza planteatzen delako.

Madrilgo gobernuei ez zaie gustatu. Baina hementxe zenbait alderdi politiko ere EAJ, EA, CDN, IU-EBri, oso deseroso bilakatzeko zitzaien Alternatiba Demokratikoa, nolabait desarmatuta uzten zituelako gizartearen aurrean eta horren aurrean ez da posible inolako argumenturik ateratzea kontra. Beraz, eztabaida politikoa sartu beharrean, (alderdi politikoetako inor ez da ausartu Alternatiba Demokratikoari buruz publikoki eztabaidatzea) Madrilen lan zikina egiteko baimena eman eta kriminalizazioaren bidea jo dute

Herri Batasunaren prozesamendu honekin. Euskal Herri ia osoak Alternatiba hau ezagutzen zuenean, bideoaren aitzakiarekin prozesu bat ireki dute eta hori kokatzen da epaiketa hau.

Baina badu beste arlo oso garrantzitsu bat. espainiar Gobernuak, Espainiako botereak, arrisku handiak ikusten ditu Euskal Herria gorantza doalako. Dinamika abertzalea eta soziala ere herri honen burujabetza lortzeko eta azken finean herri eraikuntza aurrera doalako, beldur handia duenez, sakoneko apustuan kokatzen du hau. Apustu hori da azken finean, sistematik kanpo dauden espresio sozial eta politiko guztiak desagertaraztea.

Bestaldetik ez dago inolako argudio juridikorik prozesamendu hau ireki ere egiteko. Baina azken finean sistemaren defendatzaileak diren alderdi politiko guztien babesa du.

- Nola bukatuko ote da epaiketa?

- Kasu guztietan Euskal Herria aterako da garaile prozesu honetan. Alternatiba Demokratikoaren kriminalizazio honekin eta Mahaia-aren epaiketaren eszenifikazioarekin, Euskal Herrian lozorroan zeuden kontzientzia asko esnatzeko ere ba-

lio izan du. Beste aldetik, ez noa kinielak egitera, baina Tribunal Gorenean defendatuko gara indar guztiz, epaileak beraiek ere harritzeko moduan, eta konfiantza handia dugu gure buruarekin eta gure defentsa juridikoarekin. Epaiketa honetan eta Mahai Nazionalakideen defentsan eta Alternatiba Demokratikoaren askatasuna eskatzeko ere, borrokarik garrantzitsuenak Euskal Herriko kaleetan dago. Nire konbikizio pertsonala: ez gaude kondenatuta eta ez gara kondenatuak izango. Ez da gogorik ez daukatelako, baina ez diegu horretarako aukerarik emango. Prozedimentu honen helburu gehienak bete dituzte, etsaiaren ikuspegitik. Alde batetik, Herri Batasunaren bulnerabilitatea agerian utzi dute, orain arte alderdi politiko baten zuzendaritza ikutuezina zen eta abar. Bestaldetik, potentzialitate handia duen Alternatiba Demokratikoa, ezlegezko zerbait bezala utzi dute gizartearen aurrean, horrela indargabetuko dutelakoan. Prozesu honetan egin dutena da, ajola zaien gauza bat: ezker abertzalearen espresio sozial eta politiko guztiak desagertarazteko behar duten legediaren aldaketa legitimatu.

OPS Ingenieros S.L.

* Topografiako Lanak: lur neurketak, balorazioak.

* Nekazar proiektuak: bideak, ur deposituak, etxebizitzak, granjak, nabeak...

☎ 18 00 84 - 18 00 33

GOIERRIKO KANPO KOOPERATIBA

Ganaduzaleek ganaduzaleentzat sortutako kooperatiba

MOTA GUZTIETAKO pentsuak, ongarriak, lantresnak

Esuskal Herria Kalea
Industrialdea

☎ 88 04 15
☎ 16 07 07

ORDIZIA
OLABERRIA



Ormaiztegiko saihebidia

Gaur, urriaren 17an, inauguratuko da Ormaiztegiko saihebidia. Beasaingo Antzizar lotunetik Alegi auzorainoko autobidea, beraz, irekia izango da, guztira lau kilometro t'erdia. Beasain-Durango errepidearen bigarren fasea da Ormaiztegiko saihebidia.



Suhiltzaileen gose-greba

Gipuzkoako Aldundiko zenbait suhiltzaileek, eta tartean hainbat goierritarrek, astebeteko gose greba egin dute 'Euskal Presoak Euskal Herrira' lelopean. Autobus ibiltarian ibili ziren herriz herri, eta urriaren 1ean Ordiziako azokan izan ziren, suhiltzaile jantziak soinean. Presoen bateratzea, gaitz sendaezinak dituztenen kaleratzea eta zigorraren 3/4a beteta duten presoaskatasuna eskatu zuten.

II. Olinpiada Txikia

Eskola Txikiek, II. Olinpiada Txikia jokatu dute urriaren 29an, Zizurkilen. Goierritarrek ere, Gabiria eta Zeraingoak, bertan izango dira.

Josune Bereziartu

Espainiako eskalada txapelketa irabazi zuen urriaren 12an, Murtzian.



Izaskun Larrauri tiroz hil zuten

Urriaren 9 gauean, Ikaztegiako gasolindegian lan egiten zuen 41 urteko Izaskun Larrauri legorretarra hil zuten eskupeta tiroz. Hilketaren zergatia lapurreta da Ertzaintzak emandako bertsioaren arabera. Lapurrek 20.000 pezeta eraman zituzten diru-kutxatik. Gasolindegiko gerenteak argitu nahi izan zuenez, buzoi-kaxa batean joaten dira langileak piskanaka diru sartzen eta kaxa hori segurtasuneko goardak bakarrik ireki dezake.

14:00etatik 22:00etarako txanda betetzen zuen Izaskunek. Etxera itzultzen ez zela ikusita, anaietariko bat joan eta hantxe aurkitu zuen Izaskun, buruan tiroa zuela. Hilketaren argitzeko herritarren laguntza eskatu du Ertzaintzak. Informaziorik duenak, jo beza Ertzaintzak Tolosan duen komisaldegira (67 30 22).



Ostiela! aldizkariaren 7. alearen aurkezpena egin zen urriaren 10ean, Ordiziako Baga Biga dendan. Bi gai nagusi ditu ale berriak: Jon Miranderren heriotzaren 25. urteurrenaren abenduan beteko da, eta Koldo Goitia beasaindarrak eta Jon Arano itsasondorak euskal idazle honen berri luze eta zabal eman dute. Horrekin batera, orain dela 30 urte hil zuten Che Gebarari buruzko erreportaia ere azaltzen da. Aldizkaria sendotu nahi da datorren urteari begira Paperzaleak Elkartek eta harpidetza kanpaina eta zabalkunde lana egiten ari da. Euskal idazle eta kultur gileen aldizkaria izan nahi luke Ostiela!-k. (Salmenta puntuen berri 'Debaldeko iragarkiak' atalean duzue).

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27 ☎ 882007 BEASAIN



URBITARTE sagardotegia



Erreserba telefonoa
18 01 19

Ergoiena Auzoa
ATAUN

IBAI-ONDO

ZURGINTZA
ALTZARIAK

P.V.C.ko LEIHOAK



Antzizar Auzoa, z/g
☎ 880543 BEASAIN

Lareo inguruan turismo-gunea eraikitzeko proiektua aztergai

Ataungo Lareo urtegi inguruko Maumendi basoan, turismo-gunea eraikitzeko proiektua aurkeztu du Adur S.L. enpresak. 256 lagunentzako 40 zurezko borda, harrera etxea, igerilekua eta bi pelotaleku eraikiko lirateke. Gaia aztertzen ari dira ataundarrak; batetik, ingurugiroaren gaineko eragina, eta bestetik, herriaren garapen sozio-ekonomikorako izan dezakeen garrantzia. Aitor Auzmendi Ataungo alkateak kontatu dizkigu xehetasunak.

Azken 30 urteetan mila biztanle baino galdu ditu Ataunek. "Azkeneko urteetan nekazaritza beherako joan den sektorea da. Ataunek ez du jakin garatzen beste aktibitate ekonomiko batzuen baitan. Azkena egin dugun garapen planean ezinbestekoa ikusten da herriari eutsi ahal izateko, bertan ogibidea izatea. Ogibide berriak turismo alorrean sor daitezkeela ikusten dugu, natur eta kul-



Erabakia hartu aurretik Udalak hainbat erakunde, elkarte, eta alderdiei eskatu die beraien iritzia: Diputazioko Mendi Nekazaritza, Jaurlaritzako Ekonomia eta Turismoa, Aralar Parke Naturala, Jaurlaritzako Turismo, Ur Kontorsioa, Goieki, Aralar Mankomunitatea, ENBA, ENHE, Gipuzkoako Mendi Federazioa, Aralar Izadi Taldea, Herrigintza, HB, EA, EAJ eta Gipuzkoako Baso elkarteak. Hauen erantzunetan mota guztietako iritziaik daude.

tur baliabideak ditugulako", zehaztu digu Auzmendi.

Adur S.L. enpresarekin harremanetan jarri eta turismo arloan inbertsioak egiteko asmoa zutela ikusita, Lareoko aukera hasi ziren aztertzen. Nafarroa Beherean, Iratiko oihanaren inguruetan dagoen esperientziaren gisakoa litzakete. Alegia, 40 zurezko borda eraiki, neurri ezberdinetakoak, 256 lagunentzako lo-lekuarekin. Horrekin batera, aisialdirako igerilekua eta bi pelotaleku; eta jatetxe eta supermerkatu txiki bana. Bertara iristeko bideari dagokionez, gaur egungo bidean hobe-

kuntza minimoak egitea bakarrik aurrakusten omen da. Guztira 600 miloi pezetako inbertsioa.

Maumendi izeneko basoan kokatuko litzateke. Lur hori publikoa da eta "horrela izaten jarraituko luke. Hainbeste urterako lurra utziko lirateke, zenbait baldintzekin. Kanon bat ordaindu beharko lioke trukean Udalarari", dio alkateak.

Azterketa fasean dago proiektua. Horretarako bi txosten eskatu dira: bideragarritasun ekonomikoarena LKS konsultorari, eta ingurune-inpaktoarena, IKTri. Era berean, iritzia eskatu zaie gai honekin zerikusia

izan dezaketen elkarte eta instituzio politikoei. Azken erabakia, Ataungo Udalak hartu beharko du.

Desabantailak

"Ezin dugu pentsatu inpaktorik ez daukanik. Edozer gauza egiten den momentutik inpakto bat dago, kontua da baloratzea zenbaterainokoa den. Aralerra autoz igotzeak berak ere inpakto bat dauka, eta hau egiteak zer esanik ez. Azken batean, etekin positiboak izateagatik ingurune-inpaktoa asumitzeak merezi ote duen aztertu behar dugu".

Gauzak honela, ITKtek egindako txostenaren arabera, proiektu honetan desabantailarik handiena, urarekiko eta abereekiko ikusten dira, alkatearen esanetan.

- Urari dagokionez:

Maumendiko basoan dago planteatuta proiektua. Ubeiko leizera joaten da bertako ur isuria eta Ubeitik Aiaturrietara, kondukto naturalaren bidez. Alegia, kontsumorako ura biltzen eta banatzen den lekura. Gauzak honela, turismo-gunean sortutako ur zikina Aiaturrietara joango litzateke. Beraz, zera planteatzen du ITK-k: Inguruan dagoen Maiuzulo basoan kokatzea, Lizarrutiren bestaldean dagoen Urzulora ateratzen baita bertako ura, eta handik Agautza



☎ 88 55 00 ORDIZIA



Eguneroko menua 850 pezeta
astelehenetik ostiralera,
12:30 etatik 15:00 etara

Zaldizurreto, 7 ☎ 88 98 44 BEASAIN



LADA
Ssang Yong

N-1, z/g
☎ 88 09 47

ARANDIA
Garajea

AUTOEN KONPONKETA

Iurre Auzoa
OLABERRIA



Ataungo proiektua egiteko argazkian ageri den Iratiko gunea hartu dute oinarri bezala.

errekara zuzenean. "Ez dauka lotura zuzenik kontsumorako erabiltzen den urarekin. Txostenak ere dio tratamendu biologikoak egin beharko liritekeela, uraren zikinkeria % 90ean garbituko lukeena. Prozesu naturalen bidez % 100ean depuratuko litzateke. Egunen batean deskuidoren bat edo matxuraren bat izanez gero, ez luke eraginik izango kontsumorako erabiltzen den urarengan".

Hori bai, igerilua eraikiko balitz, bertako ura ezin go da etengabe errekara botatzen aritu, ur bera erabili beharko litzateke.

- Abereei dagokionez:

Proiektua 6 hektareako pagadian planteatzen da. "Horko bizitza aldatuko du noski. Zenbaterainokoa izango den baloratzea oso zaila izango da. Okil beltza hegatzia Ataungo mendietan bakarrik omen dago, desagertzeko arriskuan egon daitekeena. Baina 6 hektareako gai batetaz ari gara eta Ataunek momentu honetan 3.000 hektarea pagadi ditu. Orduan, eragin eragingo lioke, baina kontuan izanik inguruan hainbeste pagadi dagoela, tek-

nikoek diote ez zaiela iruditzen arriskuan jarriko litzatekeenik hegazti honen habitata".

Urarekiko eta abereekiko eraginez gain, landaretzan ere izango da eraginik. Txabolak egiteko pagoak bota beharko dira. Hori dela eta, herriko beste eremuetan galdutako pagoak landatzea aurrikusten da. Era berean, pago landarea sortzeko hazitegia dago Maumendi inguruan. Auzmendiren esanetan, "hori ere beste eremu batean egiteko arazorik ez dago".

Alkatearen esanetan, ingurugiro dauden bi inpakto nagusienak, urarena eta abereena, neurriak hartuz gero arriskurik gabe egin daiteke. Abereengan inpaktoan izango baina ez du inongo piztien deagertzetik arriskuan jarriko, beste 3.000 hektarea dituztelako

Ataunen, beraien bizia desarroilatzeko. Beraz, "izan daitezkeen etekin positiboengatik, inpaktoa asumitzeak merezi ote duen aztertu beharko da".

Abantailak

Sozio-ekonomiko ikuspegitik datoz abantailak. LKSk bideragarritasun plana egin du, Adur enpresak berak egindakoa kontrastatzeko. LKSren txostenaren arabera, guztira 256 lagunentzako lo-lekua egongo litzateke. Urte osoan zehar, batz bestea, % 50 egongo litzateke beteta. "Momentu honetan Gipuzkoako turismo hoteleroaren okupazioa % 40 ingurukoa da. Irati % 60 in-

tatistika hori kontuan hartuta, esan liteke, urtean zehar 200 milioi pezetako kontsumoa egon daitekeela. Dena ez da Ataunen kontsumituko, inguruan baizik. Ataunen eginbeharra izango da kontsumo potentzial horri ahalik eta etekinik handiena ateratzea".

Inguruko nekazalturismo baserriengan izango duen eragina ere aztertu dute. Ataunen 2 nekazalturismo etxe daude, Aralar inguruan gehiago. "Iratiko esperientziaz baliatuz, 15.000 lagun bizi dira inguruan eta 2.000 ohe daude. Urte osoan zehar % 45eko okupazioa omen daukate. Esperientziak dio ez dagoela konpetentzia zuzenik, bezero ezberdinak direla, konpatibleak dira".

"Izan daitezkeen etekin positiboengatik, inpaktoa asumitzeak merezi ote duen aztertu beharko da"

Turismo kultura

Gure eskualdean eta inguruetan oraindik ez dago gehiegi turismo berde kulturarik sartuta. Aitor Auzmendi esan digunez, "guzti hori oso kontuan izango genukeen, inbertsioa diru publikoarekin egin behar izango balitz. Arrisku guztia enpresa pribatuak berak dauka. Enpresaren ardura da jendea erakartzea".

Eztabaidarik zabalena

Gaiaren garrantziaz jabetuta, ahalik eta eztabaidarik zabalena eman nahi dute Ataunen. Udalean ordezkaritza duten alderdietako (Herrigintza, HB eta EA) ordezkariak adierazi digutenez (alkatea ere iritzi horretakoa da), oraindik txostenak aztertzeke dauzkate, azken iritzia eman aurretik. Azken batean, alde onak eta txarrak, balantza batean jarri beharko omen dira.

guruan dabil. Promozio txukun bat eginez gero, % 50eko okupaziora irits daitekeela ikusten da. Dena den, % 40ekoa izango balu ere, enpresa bideragarria dela planteatzen digu LKSk", dio Auzmendik.

Horrekin batera, 14-15 lanpostu nahiko seguru aurrikusten dira. Hortik aurrera, sortzen diren aktibitateei lotutakoak leudeke.

Bestalde, datorren jendeak inguruan sortzen duen aberastasuna ere kontuan hartu du LKSk. "Iratikoek diote, lotan franko 1 gastatzen duenak, egunean zehar 3 franko gastatzen dituela. Estatu espainiarrean diote, lotan pezeta bat gastatzen duenak, kontsumoan 2 gastatzen dituela. Estatuko es-

Baserriko oilaskoaren eguna Zerainen, urriaren 19an

Lumagorri baserriko oilaskoaren eguna ospatuko da igandean, hilak 19, Zerainen. Herri horretantxe dago Lumagorri hiltegia, eta bertako zuzendaria da Mari Jose Murua zaldibitarra. Baserriko oilaskoari buruz gehiago jakiteko asmotan jo dugu Mari Joserengana.

Garai batean baserriko oilaskoa banketeetako jakia izaten zen. Ezkontzetan esaterako, plater nagusia izaten zen. Gaur egun, ez da hainbesterako. "Asteburuetarako-eta geroz eta gehiago ari da sartzen. Konturatzen gara probatzen duenak erosten jarraitzen duela. Gustatzen da. Oraindik baserriko oilaskoa bankete bezala jartzen da. Gabonetan esaterako, aste arrunt batean saltzen denaren bikoitza saltzen da. Prestigio bat duen haragia dela eta, egun konkretuetan jartzeko dela pentsatzen du jendeak. Aurten jaunartzeetan ere hasi da jartzen". Geroz eta harrera hobea badu ere, "oilasko izena dauka eta jendeak prezioa oilasko arruntarenekin konparatzen dute. Eta ez dauka zerikusirik, ez haragia, eta ez hazkuntza prozesu guztiak".

Garestiagoa da bai baserriko oilaskoa. Lehenengo pausotik bertatik, lehenengo eguneko txita erosteak berak, garestitzen du produktua. Hortik aurrera, eta produktu natural eta sanoa lortzen saiatzen denez, haz-



kuntza eta hilketa prozesua arduratsuago egiten da. Goazen dena den, poliki-poliki eta pausoz pauso ikustera.

Hazkuntza

Egun bateko txitak erosten dira. Produktoreei eramaten zaizkie segidan. Oilaskotxaboletan 20 bat egunez, berogailuarekin izaten dituzte, 34 gradura, lumak atera arte. Ondoren txabolatxoa irekitzen hasten da eta bere kabuz aterako dira zelaia. 4-5 asterekin asko ibiltzen dira zelaian. Hori bai, eguerdian txabolara itzultzen dira, siesta egitera.

11-12 astez ibiltzen dira horrelaxe. "Guk nahi izaten dugu ahalik eta gehiena belardian ibiltzea. Aterako ez balira, ez lirateke berdin haziko haragi aldetik. Urduri ere jarriko lirateke, kanpoan asko ibiltzen ohi-tuta ditugu. Euria eginagatik ere ateratzen ditugu". Hori bai, azpiak aldatzen-eta lan gehiago izaten dute. Zorua beti lehorra eduki behar du baserritarrek. "Trukorik handiena hori da. Janaria beti berdina izanagatik, eguraldiak zerikusi handia du. Faktore klimatikoekin lotuta dagoen produktu bat berdina ateratzea ezinezkoa da".

Belarra, artoa eta soja jaten dute oilaskoek. "Artoarekin bakarrik hazita ez litzateke haragi ona izango. Artoa % 70 ematen diogu. Hortik gora emanez gero grasa eta energia asko ematen zaio, baina proteina oso gutxi. Azkeneko piska, minerala sartzen diogu. Nahiz eta belar asko jaten du eta mineral asko sartzen du", argitu du Mari Josek.

Hazkuntza prozesu osoan oilaskoak ahalik eta lasaien edukitzen saitzen dira. Oilasko arruntak txabola bakoitzean 20.000 sartzen badituzte, Lumagorrikoek 1.000 edukitzen dituzte. Belardian bertan ere, mila oilaskorentzat 2.000 m² jartzen dituzte. "Horrek ere garestitu egiten ditu, instalazio bikoitzak behar dituelako". Prozesuan zehar baserritarrek gainean izaten dira, "mimatu egiten dute produktua".

Kolorante artifizialik ez diote sartzen. "Kontsumitzaileek kolore horia nahi dute. Baina baserriko oilasko hauek ez dute denek kolore berdina izaten. Eguraldiak zerikusia dauka. Pertsonak bezala dira, eguzkiarekin horiagoak egoten dira, baina hoztearekin, horitasuna joan eta zuritu egiten



ten dira. Artoak bakarrik ez du horitzen oilaskoa, eguraldiak berak ere asko laguntzen du".

80 bat egunera kaiolatan sartu eta hiltegia eramaten dituzte. "Lanik txarrena kargatzea da. Oso biziak, bizkorak dira gure oilaskoak eta golpeak hartzea ere ebitatu egin behar da".

Hilketa

Duela bi urte Zerainen ireki zuten hiltegian hiltzen dira oilaskoak, astelehen eta ostegunetan. 15 lagunek egiten dute bertan lan. Helburua astean bataz-beste 5.000 oilasko saltzea da. Momentuan 4.000 pasatxo saltzen dituzte.

Hilketa prozesua ere geldia da, "gutxiago sufrituz gero, haragia ere hobea izaten baita. Hotza oso garrantzitsua da, harategietan iraupen puntu ona izan dezan. Oilasko normalak 2-3 egun irauten ditu, gure oilaskoak 10 egun inongo arazorik gabe. Janari sanoarekin haziz gero, haragia bera sanoagoa dago eta gehiago irauten du".


Oilaskoak hanketatik zintzilikatzen dituzte. Sensore batean sartu, 22 voltio-ko deskarga txiki bat egin, eta tontotu egiten dira,

"odol-hustutzea sufritu gabe egiteko. Sufritu gabe hiltzen baldin bada, zerikusi handia dauka haragi horren hezetasunean. Odol-hustutze hori egiten da, mokoa ireki eta zintzurreko zaina harrapatu behar da, ikusi gabe egin behar da lan hori. Kanpotik ez dugu azalik ukitzen. Eta haragirik ukitzen ez dugunez, prozesu guztia txukunagoa izaten da. Beti lortzen da egun gehiago irautera".

Odol-hustuta dagoenean ur berotan sartzen da, porotara ura ondo-ondo sartzeko. Ondo bustita dagoenean lumaketa makinara joaten da. Oso zaila omen da ondo-ondo lumatzea. Prozesu guzti honetan ur duxak botatzen dira, zikina garbitzen joateko.

Ondoren buelta emango zaio oilaskoari, hesteak-eta ateratzeko. Oilaskoa prest egongo da etiketaziorako, kalifikaziorako. "Oilaskoa ikusi eta kalifikatu egiten da. Denei ez zaie euskal labelaren eratzuna jartzen, merezi duenari bakarrik. Batzuk adibidez, golpeekin etortzen dira. Horri ez zaio euskal labelik emango. Bularrean Lumagorriren etiketa jarri eta pisatzeko prest egongo da. Kalitatearen arabera ordaintzen zaio produktoreari".

Kamaretara eramateko ordua da. Oilaskoa 38 gradutan sartzen da eta ordubetean 16 gradutara jaisten da.



Jaitsiera azkar horrekin bakteriak-eta ez bikoiztea lortzen da. Ondoren beste kamara batean sartu 3 ordutan 4 bat gradutara jaisten da. Hortik kontserbazioko kamarara eramaten dira eta handik harategira.

Prozesu osoan hiru kontrol-maila pasatzen ditu Lumagorri baserriko oilaskoak. Hazkuntza prozesuan, hilketa garaian eta Euskal Labelak berak egiten duena.

Eguraldia

Eguraldiak zerikusi handia du. Uda oso ona joan omen da eta udazkena ere horrela doa. "Ez dute inolako katarroak berbena-urarekin sendatzen ditugu. Prebentzio bezala 3 egunez ematen diegu berbena-ura".

Urtaro batetik bestera haragia aldatu egiten omen da. Urtarorik txarrena negua da Mari Joserentzat. "Hotza, haizea eta euria oso txarrak dira. Haragia jateko berdina izango da, baina azala-

ren tonua txuriagoa izaten da. Oilaskoa perfektu lumatzea oso zaila da. Luma asko dauzka. Eta kanpoan ibiltzen den oilaskoak poroak itxiagoak izaten ditu, eta zailagoa da kentzea. Azala ere oso sensiblea du eta harrotu egiten zaio. Neguan mendi puntan hazitako oilaskoa lumatzea oso oso

zaila da. Gogor-gogorra etortzen da. Sanoa bai, noski".

Goierriko klima ona omen da, baina aukeran behe-laino gehitxo. Klimaz gain, produktore onak ere badituzte Goierriin zaldibitarrek esan digunez. Lumagorrik guztira 40 produktore ditu Gipuzkoa, Bizkaia eta Araban. Goierriin 8. "Gipuzkoan gehiago saltzen da. Lehenagotik ere kontsumo horren ohitura bazegoelako. Baserritarrek ere oilaskoak asko hazten dituzte Gipuzkoan. Bestetik, kalitatezko produktuak gehiago kontsumitzen dira. Idiazabal Gaztaren adibidea hor dago, askoz ere gehiago saltzen da eta guri oilaskoarekin ere gauza bera ari zaigu gertatzen".

Baserriko oilaskoaren eguna Zerainen

Bigarren aldiz ospatuko da aurten Lumagorri baserriko oilaskoaren eguna, Zerainen, igandean, hilak 19, goizeko 11.30etatik aurrera.

Baserriko oilaskoaren tradizioa sortu nahi dute antolatzaleek, eta produktua ezagutzera emateko aprobetxatu.

Goizeko 11.30etan hasiko da jaia. Pedro Subijana sukaldaria Baserriko Oilaskoaren laguna izendatuko dute. Iaz Juan Mari Arzak izendatu zuten. Jarraian, Joxe Agirre eta Joxe Lizaso bertsolariak izango dira. Eguerdiko 12.00etan, oilaskoaren dastaketa egingo da. Bertan prestatuko da oilaskoa, parrilan eta burduntzian. Oilasko pintxoak ere izango dira. Eta nola ez, oilo saldarik ez da faltako. Erakusketa berezia izango da: oilaskoarekin egin daitezkeen plater berriak prestatuko dira.

Egun osoz luzatuko da aurten jaia. Bazkaria izango da, ondoren, bertsolariak eta trikitilariak. Arratsaldean, 5.00ak aldera, Trial-sin erakustaldia izango da. Ruben Zabaleta zegamarra bertan izango da.



- ✓ Agroturismo etxea: bi logela bikoitz bainuarekin.
- ✓ Etxeko sukaldaritza: babarrunak, baserriko oilaskoa, arkumea...
- ✓ Eguneroko menua 800 pzta. Karta 2.000 pzta bataz beste

MANDUBIKO BENTA
jatetxea

MANDUBIKO GAINEAN
Urolatik Goierriarako bidean

Tfnoa.: 88 26 73

ORDUTEGI BERRIAK URRIAREN 20an JARRIKO DIRA MARTXAN Goierrialdea autobusak inauguratu dira ofizialki

Urriaren 3an inauguratu zen ofizialki Goierrialdea bus autobus zerbitzua. Goierriko autobus zerbitzua eskainiko duen enpresa da Goierrialdea. Gaiara eta Etxabe autobus enpresek bat egin ondoren sortu dena. Inaugurazio ekitaldia Beasaingo tren geltokiaren aurrean egin zen. Jose Julian Irizar Gipuzkoako Diputazioko Errepide eta Garraio diputatua, Goiekiko eta Goierrialdea Bus enpresako ordezkariak izan ziren inaugurazioan.



Goierriko alkateak, Joxe Julian Irizar Gipuzkoako Diputazioko Errepide eta Garraio diputatua, Goiekiko eta Goierrialdea Bus enpresako ordezkariak izan ziren inaugurazioan.

ren 20an, jarriko dira martxan. Ordutegi berriak etxez etxe banatuko dituzte datozen egun hauetan.

14 autobus izango ditu enpresa kontzesiodunak. Horietatik 6 erabilera orokorreko zerbitzuak egiteko; eta 3 plataforma baxukoak dira, mugitzeko arazoak dituztenak garraitzeko egokitutakoak. Kontzesio berria martxan jartzeko gastuak, oso-osorik Aldundiak ordaindu ditu. Guztira 240

milioi pezeta gastatu dira, batez ere ibilgailu berriak eta horien ekipamendua erosteko.

Jon Jauregik, Beasaingo alkateak eta Goiekiko Lehendakariak, aurkezpenean adierazi zuenez, Goierriren bizi-kalitatea hobetuko du zerbitzu honek, "baserriaren eta kalearen elkarbizitza hobetuko du". Jauregiren arabera, Goierriko 7 herritan ez zegoen garraio publikorik orain artean, ez eta

Zumarragako ospitaleraino korik ere. Hori bai, "zerbitzua irekia da, ez da bukatua. Beharretara moldatuko den zerbitzua baita".

Juan Manuel Barandiaran Goiekiko gerenteak bere aldetik, garrantzitsuena egiteke dagoela azpimarratu zuen. "Zerbitzua jarri da martxan, baina kultura berri bat sortzea falta zaigu".

Kiriku

Kultura berri hori sortzeko hain zuzen ere, haurrentzat oka-joko berezia prestatu dute. Kiriku maskota buru dutela, autobus zerbitzuaren lau ibilbideak kolore ezberdinez azpimarraturik daude. Hurrekin lan egin bai, baina gizarte osoaren sentsibilizazioa gauzatzeko kanpainak egingo dira, beti ere, Kiriku maskota oinarri harturik.

Barandiaranek era berean, bi enpresariak animatu nahi izan zituen, zerbitzuaren alde gogor lan egin dezaizen.

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

ChristianDior

San Inazio, 14 ☎ 8893 90 BEASAIN

KEMEN KIROLAK



Zumalakarregi, 1

☎ 88 51 68

ORMAIZTEGI

GESTORIA BIOK


ASEGUROAK

- ✖ Aholkularitza laborala eta fiskala
- ✖ Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 88 44 00 - 88 12 58

Goierri, 12

ORDIZIA



ondoeta

Nagusia, z/g.

Tfnoa.: 883102. Faxe: 88 0872

ITSASONDO

ALTZAIRUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

BEASAIN

Udazken kulturala badator

Datorren ostiralean hasi, eta azaroaren 9rarte luzatuko da 1997ko Udazken kulturala. Urtero bezala bi aste hauetarako egitarau zabala prestatu da, eta ondorengo ekiladiak izango dira nagusienak.

Irekiera ekitaldia ostiral eguerdian iritsiko da, Igarzako ibilbide turistikoaren inaugurazioarekin. Igarzako multzo monumentaletik abiatuz, inguruko hainbat leku interesgarri bilduko ditu ibilbide honek, eta ibiltarietara zuzendutako panel informatibo batzuk ere ezarriko dira. Azken hauek, Diputazioaren ekimen bati dagokio, eta laster probintzia osoan ezarriko diren modukoak dira.

Asteburuan, urriak 25 eta 26, 'Loinaz 97' Haurrentzako Parkea irekiko da. Parke hau bi ingurutan banatuko da: Dolarea parkea eta San Martin baseliza inguruan, eta bi gune hauek eta Barrandain plaza elkartuz debaldeko tren pneumatikoa izango da.

Bi egunetan zehar, hainbat ekitaldi izango da txikienen gozamenerako: marrazki eta zirko tailerrak, magia, antzerkia, pailazoak, dantzaldiak, kart-ak, motorrak eta jokoak. Helburu bezala, umeei gozatzeaz gainera, haur eta gurasoak bezperan inauguratutako ibilbidera hurbiltzea bilatuko da.

Igande goizean, Diapositiba Rallya eta Aire Zabelko Pintura lehiaketa ere izango dira. Astelehenean, urriak 27, berriz, 'San Martin Igo-kundekoa, Loinazkoa eta Amunabarrokia: gipuzkoar ezezaguna' liburua aurkeztuko da. Martin Mendizabal

frantziskotarrak burutu du lana, Santuaren heriotzaren 400. urteurrena dela eta. Asteartean, Errezil Sagarren X. lehiaketa jokatu da goizean.

Gainera, astean zehar, ETBko Superbat saioko Euskaraokerearen grabaketa izango dugu San Martin baselizaren inguruan. Bertan, haur beasaindarrek saioko atal desberdinetan parte hartuko dute: euskaraokera, letraokera... Eta egun osoan zehar joko eta tailerrak izango dira. Hau guztia asteazkenean izan liteke, baina lehen hauek idazterakoan dataren ziurtatze ofizialik ez zegoen.

Ostiral gauean, 'Chicos Mambo Show' antzerki talde katalunarra izango da Usurbe Antzokian, transformismoaren inguruko obra dibertigarri batekin. Eta eszenatoki berean, larunbat arratsaldean (azaroak 1), Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoak izango da.

Eta hortik aurrera, eta azaroaren 9rarte, beste hainbat ekitaldi izango da. Besteak beste: Odolki lehiaketa, Txistulari eguna, Benito Lertxundiren kantaldia, magia ikastaroa, antzerki lanak....

Odol ateratzea

Beasaingo Odol Emaileen Delegazioak jakinarazten du hurrengo odol ateraldia datorren asteartean (urriak 21) izango dela, Urbi-Etxeko lokalean, arratsaldeko 6.30etatik aurrera. Ohiko emaileez gainera, berrituen bat animatzen bada, bertara azal dadila.

Aitor Arrue



Aizkolari bikaina herrian

Iñaki Azurmendi, 25 urteko arriarandarrak, 3 urte daramatza aizkora. Maila onean gainera, eta honela, denboraldi honetan, iazkoan erakutsitako gauza onak baieztatu egin ditu.

Lehenik, 3. mailako Gipuzkoako txapela lortu zuen, eta hutsune batzuk medio 2. mailakoa jokatzeko aukera ere izan zuen. Bertan, bere maila erakutsiz, bigarren sailkatu zen, eta ondorioz, ziurrenik, 1go mailako finalean izango dugu datorren urtean. Beraz, Gipuzkoako 6 aizkolari onenen artean dugu dagoeneko.

Azkenik, duela 3 aste, 2. mailako Euskadiko txapelketa jokatu zuen. Bi lehenetan geratu beharra zuen hurrengo denboraldian onenekin izateko. Eta itxaropentsu joan arren, 5. tokiarekin geratu behar izan zuen; hori bai, sailkapenetik 20 segundura bakarrik geratu zen.

Bestalde, urtean zehar 35-40 erakustaldi ere egiten ditu. "Gutxienez gastuak kubritzeko adina bildu du, egur eta erremintetarako adina. Askoz gehiagorako ez dit ematen, baina afizioa dugun bitartean..."

Iñaki oso gustora da egindako denboraldiarekin, eta lanean segitzeko asmoa du: "Maila onean nabil, eta jarraitu egingo dut noraino hel nitekeen ikusi arte. Datorren urtean Gipuzkoako finalean paper ona egitea gustatuko litzaidake, eta Euskadikoan, ea zorte pixka bat gehiago dudan eta igarotzeko modurik dudan".

Joxe Aierbe ataundarraren garaitik, ez da maila honetako aizkolaririk izan Goierriin. Gainera, aurrera begira itxaropentsu da bere arerioen adina ikusita, gehienak 35 urte bultzatzen dabiltzalako. "Horiek hobetzeko gutxi dute. Eta gazteen artean nire mailan edo gainetik, Arria VI, Nazabal eta Belarra bakarrik ikusten ditut".

Gainera, hurrengo urtean oso laguntza garrantzitsua jasoko du. Angel Arrospide txapeldun handia aizkora uztekoan da, eta Iñakiri laguntzeko konpromezua hartu du. Ilusioa nabari zaio aurpegian honetaz hitz egitean. "Arrospiderekin asko ikasi liteke. Teknika, korteak, indarra nola eman. Esperientzia handia du eta gauza asko erakutsiko dizkit".

Beraz, maisu faltarik ez du izango Iñaki Azurmendik. Eta dituen sasoia eta gogoia lagun, ziurrenik goi-goian ikusiko dugu berehala arriarandarra.

ORMAIZTEGI**Kirol eta kultur astea**

Urriaren 20tik 26ra bitartean kirol eta kultur astea ospatuko da herrian. Horretarako ondorengo egitaraua prestatu da.

Urriak 20, astelehena: Javier Juanes De la Peñaren 'Gipuzkoako jaiak udan' emanaldia Kultur Etxean, 19:30etan.

Urriak 21, asteartea: Felipe Uriarte mendizaleak prestatutako 'Pamirren bihotzean' mendi emanaldia, Kultur Etxean, 19:30etan.

Urriak 22, asteazkena: Patxi Sanzen 'Euskal Herriko mitoak atzo eta gaur' izenburua duen emanaldia, Kultur Etxean, 19:30etan.

Urriak 23, osteguna: Elikaduradi buruzko hitzaldia: Ane Miren Uranga eta Arantza Lorenzok, Elhuyar taldeko dietetika diplomatuek, 'Zer ahoratzen dugu? Elikagaien osaketa' izenburuan zuzendutako hitzaldia. Kultur Etxean, 20:00etan.

Urriak 24, ostirala: Errealeko jokalariek hitzaldia eta solasaldia: Errealeko jokari batzuk hurbilduko dira. Zubipe kiroldegian izango da, 20:00etan. Solasaldi honetako aurkezlea Igor Sarriegi kazetaria izango da.

Urriak 25, larunbata: Umeentzako parkea: Umeek egun guztian zehar parke batean jolastu eta ongi pasatzeko aukera izango dute. Parke hau kartzatutako osaturiko zirkuitua, airezko rokrodo-moa, airezko gaztelu pista eta zezen mekanikoz osatua egongo da. Parkea herriko enparantzan kokaturik egongo da.



Urriak 27, igandea: Dantzari Txiki eguna: Egun guztian zehar dantzari eta euskal jai giroa nagusituko dira herriko kaleetan. Oraingo Goierriko bost dantza taldek eman dute baietza egun honetan parte hartzeko. Gonbidatu berezia Gabiriako Goruntz dantza taldea izango da, Ormaiztegiko haur asko bertako partaide baitira. Parte hartuko duten gainontzeko lau taldeak ondorengo hauek dira: Ordiziako Jakintza, Lazkao Oin-Arin, Beasaingo Aurtzaka eta Legorretako dantza taldea.

Egun horretarako prestatu den egitaraua ondorengo da:

10:30etan: Zubipe kiroldegian dantzari harrera egingo zaie hamaiketako eskainiz. **11:30etan:** Kiroldegitik abiatuz herriko kaleetan zehar dantzari kalejira dantza desberdinak egingo dituzte. Kalejira hau Oihana Katarain, Nagore Lizarralde eta Oihane Arratibel trikitilariak alaitua izango da. **13:00etan:** Herriko enparantzan talde guztiek batera Agurra, Zinta dantza eta Ikurrin dantza eskainiko dituzte. **14:30etan:** Dantzarien bazkaria herriko

enparantzan. **17:00etan:** Talde bakoitzak beraiek au-

keraturiko bi dantzen aurkezpena egingo du. **Ondoren:** Merienda eta Zubipe kiroldegira kalejira eguneko ekitaldiei amaiera emanez.

Kultur aste eta dantzari txiki egun honen antolatzailea Udala bada ere, beste hainbat herritar eta erakunde laguntzaile izan dira. Besteak beste, Guraso elkarte, Gabiriako Goruntz dantza taldeko partaideak eta Kutxa Fundazioa.

Aitziber Murua

Zorionak Koke Lasa!



Abuztuaren 26an Manaslu mendia egitera abiatu zen euskal espedizioaren berrien zain geunden. Oraingo honetan espedizio hau lau euskaldunek osatzen dute: Koke Lasa herritarra eta Juanito Oizartabal, Iñaki Kerejeta eta Natxo Fernandez gasteiztarrek. Asteazken goizean iritsi zen guztiok espero genuen berria.

Hain zuzen ere, inoiz euskal espedizio batek lortu ez duen zortzimilako hau gure herritar Kokek eta beste hiru gasteiztarrek lortu dutela.

Gasteizen espedizio honen aurkezpenean adierazi zuten bezala, irailaren 10 ingururako oinarritzko kanpamenduan (5.000 metroan) egotea itxaroten zuten. Ondoren hurrengo kanpamenduak (5.700, 6.200 eta 7.100 metrora) jarritz eta azkenik gailurra urriaren hasieran egiteko asmoarekin. Hau guztia paper gainean erabat ondo aztertuta bazuten ere errealitate bihurtzea espedizio kideek zioten bezala, beste gauza bat zen. Manaslu mendia ondo ezagutzen dutenez, bada-kite zein erraza den bertan izotz masak mugitzea. Koke Lasa, beste taldekideak bezala, itxaropenez beterik abiatu zen zortzimilako mendi hau egitera. Berak zioen bezala, Manaslu lortuz gero, bere hirugarren zortzimilakoa izango litzateke, dena den, Kokek zenbaki hauek ez die garrantzi gehiegirik ematen. Juanito Oizartabal, berriz, 14 zortzimilako lortzeko bidean aurrera doa. Dagoeneko zifra hori lortzeko hiru besterik ez zaizkio gelditzen: Shisha Pangma, Dhaulagiri eta Annapurna.

LAZKAO

Etorkizuneko txapelkunak



Bikote gazte bat dugu oraingoan protagonista Lazkaoko kronika honetan. Biak dantzariak dira, oso onak gainera, eta bietako bat lazkaotarra dela aprobetxatuz tartetxo bat eskeintzea merezi dutela iruditzen zaigu.

Joseba Apaolaza aramarak eta Irati Imaz lazkaotarrak osatzen dute hain zuzen bikote hau. Biak dira oso gazteak, hamarna urte hain juxtu, baina beraien trebezia erakusteko beta izan dute jadanik.

Aurten bertan, Oiangun, Euskal Jaietan egin zen dantza sueltoko txapelketan hirugarren izan ziren gaztetxoaren kategorian. Gaztetxo hauen arteko txapelketa irailaren 14an izan zen goizez. Hamabost urtetik beherako gazteek parte hartzen dute maila honetan, eta bikote guztien artean hirugarren egiteak meritu handia du. Meritua, haundiagoa da gainera, kontutan hartzen badugu lehenengo eta biga-

rren egin zuten bikoteetako kideek hamalauna urte ziztuztela, eta adin hauetan lau urtetako desberdintasuna oso handia da.

Sei urterekin hasi ziren Joseba eta Irati dantza ikasten, eta azken urte hauetan txapelketa askotan parte hartu dute. Lehengoaz gain, emaitza onak lortu dituzte beste hainbat txapelketetan, hala nola, Bergaran egin zen azkeneko Euskal Herriko txapelketan hamar aurrenekotan sailkatzea lortu zuten eta iazko Oianguko txapelketan ere hirugarren izan ziren bederatzi urte eskasekin.

Emitza hauek ikusita eta duten adinarekin, bistan da etorkizun oparoa izan dezaketela Josebak eta Iratik. Ilusiorik ez zaie falta eta dantza egiten jarraitzeko gogo biziz daude. Guk hemendik zorionak eman nahi dizkiegu eta animorik beronenak aurrerantzean ere berdin jarraitu dezaten.



Azki emakume elkartearen hitzaldiak

Herriko Azki emakume elkarteak hainbat ekintza eta hitzaldi antolatu du urritik abendura bitartean. Txaro Arteaga, Emakundeko Zuzendariaren hitzaldiarekin hasi zen martxan hitzaldien zikloa. Hurrengo urriaren 21ean izango da. Diana Saucak, emakumeen erasoetan espezialista den psikologo klinikoak, emakumearen tratu txar fisiko eta psikikoei buruz hitz egingo du. Udaletxeko Batzar Aretoan izango dira hitzaldi guztiak, arratsaldeko 5.00etan.

Ikastaroak ere antolatu ditu Azkik. Astelehen eta asteazkenetan, Joga ikastaroa izaten da, goizeko 10.00etatik 11.00etara. Ortografiari buruzkoa, Elizan izaten da, ostegunetan, arratsaldeko 5.30etatik 7.30etara. Eta igeltsu edo alabastrinazko irudiak pintatzen ikasteko aukera, asteazkenetan dago, 5.00etatik 7.30etara, Elizan. Informazio gehiago nahi duenak, 16 01 31 telefonoan (Ana) aurkituko du.

Egin mus txapelketa

Martxan da jadanik Egin egunkariak urtero antolatu ohi duen mus txapelketaren seigarren edizioa. Lazkaon ere, beste hainbat herritan bezala, herri mailako kanporaketak egingo dira.

Lazkaoko kanporaketak urriaren 24an izango dira Gerriko tabernan. Inskripzioa gaueko 9:30-etan irekiko da eta 10:00-etan hasiko dira kanporaketak. Parte hartuko duten bikoteak sei

izan beharko dute gutxieenez, bikote bakoitzak 3000 pezeta ordainduz. Lazkaoko kanporaketan parte hartuko duten bikote kopuruaren arabera erabakiko da, Hernanin burutuko den herrialde mailako txapelketara zenbat bikote joango diren. Lazkaoko kanporaketan lehenengo egiten duten bi bikoteek afari bana izango dute Itxurrene jatetxean.

*Urko Irastorza
Koldo Urrestarazu*

ARRIETA

JATETXEA

88 00 02

OLABERRIA

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

GOIERRITARRA



88 96 12

GABIRIA

Juan Idarreta irabazle Osinalde bola txapelketan

Joan den urriaren 5ean jo-
katu zen herriko bolatokian
Osinalde elkarteak antolatu
ohi duen bola txapelketa eta
bertan Aiako Juan Idarreta
jauna izan zen irabazle sei
bolatan 36 birla bota zitue-
larik. Parte hartu zutenak 59
izan ziren eta txapeldunaren
ondoren Urrietako Nikanor
Lizeaga izan genuen 35
punturekin eta ondoren Ze-
raingo Antonio Alustiza.

Herritarren artean irabaz-
lea Felix Maiz izan zen 34
punturekin eta bigarren bere
anaia den Iñaki Maiz 33
punturekin. Gazteen artean,
aldiz, irabazlea Idiazabalgo
Axier Katalina izan zen eta
bigarren Mikel Lazkano 31
punturekin.



Txapeldunak trofeoak jasotzen.

Giro ederra Jubilatuaren egunean

Joan den urriaren 12an os-
patu zuten jubilatuek Uda-
lak eskaini ohi dien festa-
eguna, eta eguraldiak asko
lagundu ez arren lagunarte
ederrean igaro zuten.

Ospakizunari hasiera

emanez meza nagusia izan
zen, ondoren herriko dan-
tzarien saioa eta honen on-
doren bazkaria, aurtengoan
Ostatuan.

Ospakizun honen ba-
rruan opari berezia egin zi-
tzaien orain arte oparirik ja-
so ez duten eta bertan zeu-

den herriko bi zaharrenei,
hain zuzen ere, Aunditegiko
Martini eta Eulogiari. Ho-
rretaz gain, Arretxemendi-
ko Rufinori ere omenaldi
hunkigarria egin zitzaion
iazko udazkenean Frantzia-
ko Legioaren domina jaso
zuela eta. Rufino gaur egun
Ezpeleten bizi da eta azken
egun hauetan omenaldiak
direla eta etxetik dexente
atera beharra izan duenez
nekatu xamar ageri arren
zoriontsu etorri zen omenal-
ditxo hori jasotzera bere
esanetan benetako sortetria
Gabiri baitu.

Azkenik, bazkal ondoko
giroa gehixeago alaitzea-
rren bertsolariak eta trikiti-
lariak aritu ziren.

Gabino Murua

LEGORRETA

Kultur asten astenzkenetik igandera

Urriaren 22an, asteazkene-
an hasiko da aurtengo Kul-
tur astea. Asteazkenetik
igandera bitartean luzatuko
da.

Urriak 22, asteazkena:

18:00etan: Buruhandiak
eta trikitixa.

18:30etan: Pello Añorga
ipuin kontalariak bere lana
eskainiko du Udal Liburuteg-
ian.

19:00etan: 'Adin nagu-
siko pertsonentzako Osasun
Orientabide Orokorra. Igo
zatia' hitzaldia, Herri Zine-
man, Migel Angel Goia Del
Amo medikuaren eskutik.

20:00etan: 'Internet:
Munduko armiarma-sarea'
hitzaldia Udaletxeko Areto

Nagusian, Elhuyar Kultur
Elkarteko informatikari den
Asier Otamendiren eskutik.

Urriak 23, osteguna:

17:00etan: Tirolinak,
puenting eta eskalada herri-
koia, Udal pilotalekuan.

19:00etan: 'Adin nagu-
siko pertsonentzako Osasun
Orientabide Orokorra. II.
zatia' hitzaldia, Herri Zine-
man, Migel Angel Goia Del
Amo medikuaren eskutik.

20:00etan: 'Abiadura
Handiko Trena' gaiari bu-
ruzko mahaingurua Udale-
txeko Areto Nagusian.

Urriak 24, ostirala:

16:00etan: 'Eskola po-
rrota' hitzaldia Ugara ika-

tetxean, Pedagogia Fakultu-
tateko irakaslea den Felix
Etxeberriaren eskutik.

16:30etan: Pote, igel eta
toka txapelketa herriko ju-
bilatuaren artean.

23:00etan: III. Mus tx-
apelketa Bilkoin K.K.E.-n.

Urriak 25, larunbata:

11:00etan: Haur jokoak
eta marrazki lehiaketa Iupi-
lapa Aisialdi taldearen es-
kutik.

17:00etan: 'Tutik ere'
pailazoak Udal pilotale-
kuan.

22:30etan: 'Poderosa
Afrodita' eta 'El cartero'
filmeak Herri Zineman.

Urriak 26, igandea: Euskal jaia:

10:00etatik 14:00etara:
Arabako Artisautza erakus-
keta.

Goiz osoan: Eneritz eta
Naiara trikitilariak.

12:00etan: Buruhandiak
eta trikitixa.

13:00etan: Herriko soi-
nujole eta dantzari gazteen
emanaldia herriko pilotale-
kuan.

Oharra: Urriaren 25ean
(17:00 - 20:00) eta 26an
(11:00 - 14:00; 17:00 -
20:00), joan den urteko es-
kulan ikastaroko ikasleen
erakusketa izango da Kultur
Etxean.

IDIAZABAL

Urriaren 26tik azaroaren 1a bitartean egingo da aurtengo Kultur Astea. Azken urteetan udaberrian egiten zen Kultur Astea, baina aurtengo Kultur-batzordeak udazkenarako antolatatu du. Astebe-
tez ondoko ekitaldiak izango dira herrian:

Urriak 26, igandea: Artisau erakusketa plazan goizez eta arratsaldean. Eguerdian paella erraldoia egiten hasiko dira futbolaren pistak. 14.00etan herri bazkaria pilotalekuan, goizean prestatutako paella jango da. Bazkarirako txartelak herriko tabernatan daude salgai hilaren 22ra arte. Egunean zehar, Idiazabalen ospatu zen 1996ko Euskal Herriko gazta txapelketako bideoa ikusgai izango da orduoro Kultur Etxean.

Urriak 27, astelehena: Arratsaldeko 7.30etan 'Internet: munduko armiarma sarea' hitzaldia emango du Asier Otamendik.

Urriak 28, asteartea: Arratsaldeko 7.30etan 'Eguraldiaren gorabeherak' hitzaldia emango du Pello Zabalak.

Urriak 30, osteguna: 19.30etan. 'Zer ahoratzen

dugu?'. Elikagaien osaketa hitzaldia emango dute Ane Miren Uranagak eta Arantzeta Lozanok.

Urriak 31, ostirala: Arratsaldean merienda eta jolasak eskolaumeentzat.

19.30etan Juanxo Agirre, Aranzadiko arkeologak herriko trikuharriak garbitzen egindako lanaren berri emango du. 22.30etan Oihulari Klown taldeak 'Zai... beti Zai' antzezlan eskainiko du Guraso Elkarteko aretoan.

Azaroak 1, larunbata: Goizeko 7.00etan Herriko Mugarrien ibilaldia Aranzadi elkarteko adituen laguntzaz.

Urriaren 26an hasita Kultur Asteak irauten duen bitartean 'Animalien mundua' izeneko erakusketa egongo da jarrita Kultur Astean.

Eduardo eta Iparrari omenaldia

Eduardo eta Iparraren omenez ondoko ekitaldiak daude antolatuta urriaren azkeneko asterako:

Urriak 23, osteguna: Arratsaldeko 8.30etan 'En

Kultur Astea urriaren bukaeran



Areto futbola

Idiazabal Kirol Elkarteko aretoko futbol sailak hasi du aurtengo denboraldia. Aurtengo hiru talde federatu dituzte: Idiazabal K.E. taldea (gizonen bigarren mailan) Idiazabal Garabi (emakumeen lehen mailan) eta Idiazabal Jaso (emakumeen bigarren maila).

Hiru talde hauek federatu ahal izateko Kirol Elkartek Udalaren, Garabi eta Jaso lantegien eta herriko dendari naiz tabernarien laguntza jaso du. Kirol Elkartek laguntza hoiek eskertu egin ditu eta herritar guztiei deia egin die iazko partiduetan izandako giroari eutsi ahal izateko.

Aurreko asteburuan talde hauek izandako emaitzak hauek dira: Idiazabal Garabi 2 eta 1 galdu zuen Beasainen eta Idiazabal K.E. Pescados GJA taldeen atreko partidua banako berdinketan bukatu zen. Idiazabal Jaso taldeak hilaren bukaeran hasiko du denboraldia.

el nombre del hijo' filmea eskainiko da Kultur Etxean.

Urriak 24, ostirala: Arratsaldeko 8.30etan hitzaldia Kultur Etxean.

Urriak 25, larunbata: Arratsaldeko 4.00etan Mus txapelketa Kimu Kultur elkartean. Gaueko 10.30etan Igarondo pilotalekuan jaiak

dia, musika, kantu eta dantza emanaldiak.

Urriak 26, igandea: Goizeko 10.00etan Atxurbi gudari mendira irteera. Bi gudarien oroigarriaren aurrean ekitaldi bat egingo da.

Xabier Urteaga

ZEGAMA

Zeramika ikastaroak arrakasta handia

20 lagun hasi dira 'Gregorio Aramendi'-ren omenez antolatutako zeramika ikastaroan. Hasieran 10-12 pertsonentzako antolatua bazen ere, zegoen interesa ikusirik bi talde osatu dira. Ikastarok Udalaz gain, Goiekik emandako dirulaguntza du.

Jubilatuaren eguna

Aurtengo Jubilatuaren eguna urriaren 12an ospatu zen.

Egun horretan 180 jubilatutako bazkaldu zuten herriko ostatuan. Bazkalondoren sari-banaketa eta bertso saioak gozatu ahal izan zuten gure jubilatuek. Arrazoi ezberdinak bazkaria etortzerik izan ez zuten jubilatuek ere ez ziren ezer gabe geratu, Udalak 105 tarta eta beste horrenbeste txanpain botila banatu zituen egun hori etxean ospa zezaten.

EPA helduen hezkuntza

Ikasturte berriaren aurrean Helduen Hezkuntza martxan hasi da. Iaz Eskola Graduatua atera zuen taldeak aurrera jarraitzea erabaki du eta astelehen, asteazken eta ostiralean modulo desberdinak lantzen dituzte: matematika, lenguaia, ingelera eta tailerra. Talde honek gain, beste dozena bat lagunek izena eman dute in-

gelera ikasteko.

Escolaren inaugurazioa

Inaugurazio eguna urriaren 26an izango da. Besteak beste herriko agintariak eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak bertaratuko dira; ekitaldiaren berri esku programen bidez banatuko da herritarren artean.

Eduardo Albizu


SEGURA 63 neska-mutiko 97-98rako kirol eskolarrean



Kirol eskolarreko areto-futboleko neska alebinen taldea.

Eskolako aktibitateez kanpo neska-mutikoen heziketa eta jolasa helburu izanik, Xabier Intxausti kirol koordinatzaile-teknikariaren ardurapean, Laiotz Herri Eskolako DLHko 50 haurrek eta DBH egitera herritik irten-dako 13k, urriaren 11n eman zioten hasiera, ekainera arte iraungo duen kirol eskolarreko denboraldiari. Eskualde eta herrialde mailan antolatzen diren kirol aktibitate hauetan 12. aldia da Segurak parte hartzen duena. DLHko 55 ikasletatik 50 arituko dira eta DBHko 30etatik 13. Bakoitza kirol modalitate batean baino gehiagotan arituz, guztira 134 partehartzaile izango dira. **Areto-futbola:** 48 haur 5 mailatan, Xabier Intxaustiren ardurapean. **Mendi-irteerak:** urritik ekainera 10 izango dituzte. 15 neska-mutiko, Txetxu Ormazabalaren ardurapean. **Atletismoa:** 22 haur 3 kategoriatan, Xabier Intxaustiren ardurapean. **Pelota:** 19 mutiko 3 mailatan, Patxi Etxeberriaren ardurapean. **Tenisa:** 9 neska-mutiko 3 mailatan, Xabier Intxaustiren ardurapean. **Txirrindularitza:** 6 mutiko 2 mailatan. **Trialsina:** 2 mutiko. **Igeriketa:** 2 neska. **Mahaitenisa:** 2 neska. Azken hauek eurenkasa entrenatuz.

Haurren gurasoek ere izango dute euren partaide-tza; txandaka, umeak garraiatzeaz arduratuko baitira. Pasa den asteburuan 4 futbol partidu eta mendi irteera izan zituzten eta aste bukaera honetan futboleko bakarrik arituko dira etxetik kanpo.



Ordu aldaketa kanpandorreko erlojuan

Urriaren 26an, goizeko 3.00etan 2.00ak izango dira. Hainbat herritarrek entzun eta begiratzen dion kanpandorreko erlojua ere atzeratu beharko da. Ordu desegokia izanik, Laureano Telleriak aurrez egingo du operazioa; 20.00etan erlojua geldituta, 21.00etan jarriko du berriro martxan. Laureano 18 urte daramatza, bere borondatez, elizako erlojuari kuerda emanez. Astean 2 alditan, kanpandorrera dauden 150 eskailera igo eta erlojua eta ttin-ttanak funtzionarazten dituzten 380, 260, 160 kiloko 3 pisu, manibelaz 7 metro igotzen ditu.

1899an Ignacio Zubillaga albisturdarrak eskuz egindako erlojua, 1.000 pezeta eta aurrez erloju zaharraren truke ekarri zuten. Orain 7 urte, kanpandorretik jaitsita Donostiako artisau-erlojugile batek konpondu zuenetik, urtean 2 aldiz koi-peztatuz, inongo arazorik gabe dabil. Argazkian, Laureano, erlojuari kuerda ematera joandako batean.

Pelota

Gipuzkoako Kluben artekoan, urriaren 10ean, Egoitz Berasategik eta Ibon Etxeberriak 22-21 galdu zuten bergararren aurka. Urriaren 17an, gaueko 10.00etan arrasatearren aurka neurtuko dira Baratzte Pelotalekuan. Aurrez, mutikoen partidua: Urtzi Intxausti eta Anaitz Goia, Ergoitz Gonzalez eta Eneko Agirrezabalen aurka.

Futbola

Asteburuko emaitzak: Infantilak: Aizkorri 6 - 1 Hamiakak-bat. **Kadeteak:** Aizkorri 2 - 0 Ostadar. **Jubenilak:** Hondarribia 4 - 0 Segura. **Errejonialak:** Segura 3 - 3 Ilintxa.

Asteburuan etxean: Jubenilak: Segura - Aurrera. Zapatuan, 16:45etan.

Labur labur

● **Bola:** Urriaren 4an, Antonio Agirre 5. geratu zen Gabiriako 'Osinalde' bola saioan.

● **Madurako bariantearen inguruan,** lur-jabe kaltetuez gain, herriko dendari eta tabernarien sektorea ere kezaturik dabil. Beraien ustez, trafikoa maduratik bideratzeak, herrian mugimendu gutxiago izatea dakar eta sektorearentzako kalte nabarmena. Urriaren 14an ziren 2. aldiz elkartzekoak, hilaren 18a baino lehen alegazioren bat egiteko asmoarekin.

● Udalak, jubilatuekin batera **adinekoentzako soinkea** antolatu nahi du, astean 2 egunetan eta egunean ordu-betez. Informazio gehiago Jubilatuen Elkartearen edo Udaletxean.

● Erreboteko **korreo etxean obratan** ari dira. Postetxerako eta postontzietarako sarrera bakarra egingo da, lehen zegoena. Komunetarako, berriz, sarrera bana egingo dira, eraikuntzaren alde banatako leihoak aprobetxatuz.

● Urriaren 19ko **Nafarroa Oinazerako** autobusa antolatu du Elorri K.E.ak. Irteera goizeko 8.30etan plazatik. Txartelak 1.000 pezetan daude Elorripen.

● Urriaren 25ean, **25 odol emanaldi** egin dituzten goieritarrei dominak banatuko zaizkie Zumarragako Legazpi eskoletan, 19:30etan eta ondoren afaria izango dute Etxeberrin. 25 emanaldi egingo dituzten segurarrak Pili Alberdi eta Kandito Garziandia izango dira.

Joseba Telleria

ATAUN

Odol ematea, elkartasun ekintza

Elkartasuna adierazteko era asko dago eta horietako bat joan zen ostiralean Oargin gertatutakoa, odol ematearena hain zuzen. Aitzakia hau aprobetxatuz, Ataunen Gipuzkoako Odol-emaileen elkarteko delegatua den Jose Luis Gorostizurengana joan gara haxe galdetzeko: eskuzabalak al gara ataundarrak?

- Zenbatek eman du odola azkeneko aldi honetan?

- 36 pertsonak.

- Hori asko al da?

- Batzbestekoaren barruan dago behintzat. Normalean, 35-40 unitate inguru izan ohi dugu; noizbait 52ra iritsi gara, baina 26ean geratu ere bai. Gainera, ataundarrentzat ostirala egun txarra dela odola emateko ikusita dago, ostiraletan tokatu denean jende gutxiago etorri izan baita. Oraingoan, adibidez, betiko batzuk faltatu izan dira, baina 4 berri ere izan ditugu.

- Urteetan zehar ze bilakaera izan du kopuru horrek?

- Lehenengo urtean, 1984an, bi ateraldietan 60 unitate bildu genituen eta ondorengo urteetan kopuru horrek goraka egin zuen: 76, 82 eta 95. 1988.etik 3 ateraldi izan ohi ditugu urtean: 1988an, 107 unitate; eta hurrengo urteetan 111, 114, 142, 136, 144... Azkeneko urteotan, kopuru hori pixka bat jaitsi da (iaz 103), baina aurtengoan errekupe-ratzte bidean jarri gara: 126.

- Zergatik jaitsiera hori?

- Behar bada, gure aldetik ez garelako behar adina mugitu; "tabarra" gutxi eman

dugulako. Horrez gain, emaille batzuk jubilatutako egin dira eta gazteak edo berriak ez zaizkigu kopuru berdinean hurbildu.

- Gauzak horrela, nola gaude inguruko herriekin konparatuz gero?

- 1996. urteko datuen arabera, Ataunen ginen 1.000 biztanleko 64,9 donazio egon ziren; Goierri osoa kontuan hartuta, berriz, 66,7 (eta Goierri izan zen Gipuzkoako eskualderik eskuzabalena zentzu honetan). Beraz, ez gaude gaizki, baina hobeto egon gitezke, batez ere, inguruko beste herri batzuk ikusita: Beasainen, mila biztanleko 90,3 donazio; Itsasondon, 144,9; Legorretan, 107; Olaberri, 122,8; Seguran, 88,8...

- Odol-emaileei buruz, zeintzu dira gehien eman duten ataundarrak?

- 1997ko martxoaren 6ko ateraldi edo ekstrakzioaren ondoren, 5 dira domina jasotakoak gutxienez 25 aldiz emateagatik: Angel Elias (36 aldiz), Jabier Bikuña (35), Joakin Aldabe (32), M^a Isabel Auzmendi (30) eta Jose Bikuña (26). Jesus

Bikuña (30), berriz, aurtengo jasoko du domina hori.

- Beti berdina al dira, bada, odola ematen dutenak? Aurten berririk bai?

- Badaude batzuk fijoak, ia inoiz faltatzen ez dutenak. Bagaude beste batzuk, eman nahi eta ezin dugunak. Aurten ematen hasi direnak aipatu nahi nituzke, gazteak direlako, batik bat. Denek ez dute errepikatzen, lehenengo aldian esperientzia txarra izateagatik edo.

- Noiztik eta nola antolatzen da odol ematea Ataunen?

- Ataungo odol emaileen elkarteak 1984.ean sortu zen. Beasaingo eta Donostiako elkarteetako partaideak etorri ziren hitzaldi bat ematera. Handik egun batzuetara odol ateraldi bat egin zen eta bertara agertutako zenbaitok herrian ateraldi hauekin jarraitzeko gogoazaldu genuen. Gipuzkoako odol-emaileen zentrala Donostian dago, Odol Bankuaren ondoan. Herri gehiengotik delegazio bat dago, bakoitzak bere ateraldiak antolatzen dituelarik. Ataungo juntan hauek gaude: Angel Elias, Dionisio Etxebe-

rria, Izarra Asurabarrena, Arantxa Mujika, Inma Aramendi, Benito Dorronsoro eta ni. Guk garaia iritsitakoa deia egiten ditugu, Donostiatik etorri beharreko ekipoarekin geratu, Oargi garbitu, odola eman ondoren indar berritzeko beharrezkoa den janaria erosi, eskualde eta probintzia mailako bileretara joan... Esan behar dut gainera, horrek guztiak sortzen dizkigun gastuak estaltzeko dirua Udalak ematen digula.

- Donostiatik datorren ekipo hori zeintzuek osatzen dute?

- Medikuek bat eta bost erizain etortzen dira, gustora etorri ere. Hemen ondo hartzen ditugula aipatu digute behin baino gehiagotan.

- Jakin beharreko beste zerbaite...?

- Urtean zehar hirutan antolatzen ditugu ateraldiak: otsailean, ekainean eta urrian. 18 urterekin hasi daiteke odola ematen eta normalean 60ekin "jubilatzen" da odol emailea. Ataunen eman ezin dezakeenak, badi beste aukerarik: inguruko herrietan (extrakzio egunean), Donostiako zentralen bertan (Larramendi kalea, 10; edozein egunetan), unibertsitatean...

- Bukatzeko, besterik...

- Guk nahiago dugu herrian jende gehiagok odola ematea, nahiz eta gutxiagotan eman. Gazteak erakarri nahi genituzke bereziki, horien falta somatzen baitugu. Odol emate hau guztion zerbitzu izan dadila.


Josune Aldabe

Labur-labur

● Joan zen larunbatean ibilaldi neurtua izan zuten herriko jubilatuek. Hona emaitzak: 1. Felix Eskisabel eta Martina Izagirre; 2. Bixente Goikoetxea eta Inaxi Dorronsoro; 3. Juanita Bikuña eta Maritxu Agirre. Partaide Zaharrenak: Benito Arruabarrena (84 urte) eta Juanita Munduate (77).

● Mendiko irteera. Ataun ezagutu kanpaina: Aldasparrena. Abiapuntua: San Martingo plazan. Noiz: urriak 19, igandea, goizeko 8.30etan. Antolatzailea: Ataun Kirol Elkarteak. Babeslea: Ataungo udala.

● Igande horretan bertan, arratsaldeko 6etan kontzertua izango dugu XXVIII. Bach musikaldiaren barnean: organojole Esteban Landart eta kornetoan Francisco Rubio.



Irun, Hernialde,
Alegia, Gaintza, Idiazabal,
Legorreta, Olaberria,
Zaldibia edo Altzon bizi
baldin bazara.

Ezkio-Itsaso,
Gabiria, Legazpi,
Ormaiztegi, Segura,
Urretxu edo Zumarragan
bizi baldin bazara.

Mendaro, Zumaia,
Deba, Aretxabaleta
edo Eskoriatzan bizi
baldin bazara.

Pauso batera daukazu Foru Aldundia.

Edo pauso bakar batzuetara. zure Udaletxeraino dauzkazunak. Bertan utzi dezakezu Aldundira eraman beharreko edozein agiri. Eta Udaletxe horietara zuzendutako edozein gestio ere Foru Aldundian bertan egin dezakezu.

Legezko epeari begira. bertan eman den une beretik balioko du. Pauso bat gehiago eman beharrik ez izateko. orain zure Udaletxean duzu Foru Aldundia.

Argibideak, aipatutako Udaletxeetan edo Gipuzkoako Foru Aldundian bertan:

482122



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Guipúzcoa
Lehendakaritza Departamentua
Departamento de Presidencia

<http://www.gipuzkoa.net>

ZALDIBIA Urriaren 26an izango da IV. Ardikiki Eguna

Lau urte dira Zaldibian Ardikiki Eguna egiten hasi zela. Ekintza honek lortu duen izen eta arrakasta kontutan harturik, aurrera segitzeko animorik ez zaie falta antolatzaileei. Honako programa honen arabera burutuko dira aurtengo ekintzak:

Goizeko 10:30etan, tobera-jole, txanbela, trikitalari, txistulari, albokari eta dultzaineroak.

11:00etan: Artisautza-erakusketa: artilea eta gazta egin eta ontzen, mondejuak egiten, etab.

12:00etan: Mondeju eta gazta lehiaketa; tartean, Lizaso eta Egaña bertsolarien saioak.

14:30etan: Bazkaria: ardikiz hornituriko menua. Prezioa: 1.500 pezeta. Tikeak salgai daude herriko tabernetan eta 16 03 38 telefonoan. Bazkalondoan, bertsolariak. Eguna osoan zehar, pottokak erakusgai.

Horrez gain, erakusketa etnografikoa, artzantzarekin erlazionaturiko arte-sautza-lanen ikusmira eta beste gauza asko izango dira ikusgai.

Joxe Ramon Irastorza 'Otto'k, antolakuntzakoa bera, azaldu digunez, kofradiak-eta ugaltzen ari zirenen garai hartan, kanpotar batzuegandik jaso zuten egun hori egiteko ideia.

Izenak berak dioen eran, ardikia izaten da protagonista, izan ere ardikia promozionatu eta euskal gastronomia ardikiaz gehixea-go ardura dadin bultzatzea da helburua. Bestalde, agroturismoa bultzatzeko plataforma moduan ere izan liteke garrantzitsua egun hau. Hitz batean, bere atabismo-kutsua, artzantza beste ogibide bat gehiago izan dadin du xehe nagusia.

Rufino Iraola

Mondejua, protagonista nagusi

Mondejua non eta nola sortu zen jakiteko ez dago daturik, baina badakigu jenero hau asko promozionatu zuena, beste batzuen artean, Zaldibiko Arotxanea jatetxea izan zela. Baserrietan lehendik ere egingo omen ziren mondejuak; ez omen zen jotzen, ordea, tabernarako moduko janaritzat, bastoegia nonbait. Beraz hemen, artean, mondejua erdi ezkutuan jaten zen bitartean, Aratxanera Bilbotik eta etortzen omen zen jendea mondejuak jatera, Goierri eta inguruko jende handia ere.

Mondeju lehiaketaren historiari begiraturik, orain arteko hiru irabazleak zaldibitarak direla esaten digu: 1994an, Rosario Mendizabal, 1995ean Rosita Armendariz eta 1996an, Maria Kruz Aginagalde. Bestalde, Rosa Armendarizek iaz ere izan zuen saria, bigarrena hain zuzen. Azkenik, Tolosako Sukia harategiak ere bi aldiz lortu du saria; 1994an, bigarrena, eta iaz, hirugarrena. Berrogeiren bat mondeju-eltze aurkeztu ohi dira txapelketara.

ORDIZIA

'Azatxoaren bila' jokoa datorren astean hasiko da



'Ordizian' merkatarien elkartek 'Azatxoaren bila' jokoa prestatu du urte bukaera bitartean. 'Azatxo' maskota sortu dute horretarako. Irune Mujikak egin du. Bata neurri txikikoa, eta bestea, gizakiaren neurrikoa. Jokoa honetan datza: herrian astero egingo diren ekintzak aprobetxatuz, neurri txikiko 'Azatxo'-a herriko komertzio ezberdin batean jarriko dute. Egiten den erosketa bakoitzeko txartel bat emango zaie bezeroei. Maskota non dagoen jakinez gero, txartela bete eta zozketan sartuko da. Sariak onak izango dira.

Trafiko aldaketak

Trafiko aldaketa ugari izan zen joan zen asteen herrian. Laburbildu ditzagun aldaketa nagusiak:

Joseba Rezola pasealekua norabide bakarrekoa dugu, Zaldibia alderakoa. Honela, bi aldeetan jarri dituzte aparkalekuak. Gudarrien etorbidean, bide honetatik datozenek izango dute lehentasuna. Erdigunetik datozenek eta Poligonotik datozenek, Stop-a egin beharko dute. Era berean, Gudarrien etorbideetik doazene, lehentasuna izango dute Fray Andreseko bidegurutzean.

Urdaneta kaleari dagokionez, norabide bakarrekoa izango da, Beasain alderakoa bakarrik.

Beste aldaketa nabarmen bat ere bada: Goierri kalean norabide aldaketa egiteko aukera izango dugu. Maite Altzariak ingurutik Joseba Rezola pasealekura joan daiteke, norabide aldaketa egin nahi izanez gero.

Erdigunera sartu nahi duenak, aukera bakarra dauka: Ordizia kaletik jaistea. Hurrengo urratsa erdigunea oinezkoentzat bakarrik jartzea izango da.

Futbito txapelketa

Udazkenean sartzearrekin batera herriko futbito txapelketa martxan jarria da dagoeneko. Aurten iaz baino 5 talde gehiago ariko dira lehian, 24 hain zuzen. Antolatzaileek bi multzotan banatu dituzte eta azkenaldiko ohiturari jarraiki, neurketak Majori kiroldegian jokatuko dira. Talde federatuen ordutegiak errespetatu ondoren, libre geratzen diren larunbat eta igande goizetako orduak aprobetxatuko dira norgehiagokak jokatzeke. Lehen fasea ligaxka moduan jokatuko da eta hurrengora multzo bakoitzeko lehen lauak pasako dira. Gogoratu iazko txapel-dunak Alegiako Santos sargardotegikoak izan zirela.

Kirol errepasoa

Irailean hasi ziren talde federatuei dagozkien ligaxkak eta lehen begiradaxo bat botata ez doazkie gauzak era berean kirol sail desberdinei. Futboleko Javi Fernandezek mutilek hasiera kaxkar samarra izan dute

Preferente mailan. 6 neurketa jokatu dituzten honetan, garaipen soila lortu dute, bi berdineketa eta 3 partidu galduta. 15. postuan sailkatua dago momentuz eta esan golik gehien jaso duen taldea dela. Trintxerpe jasoko du asteburu honetan Altamiran, Pasaiaren kontra 7-3 galdu eta gero.

Rugbyko talde gorenari dagokionez, berriz, gauzak guztiz bestelakoak dira. Lehen mailan dabilta eta jokatu dituzten hiru neurketetatik denak irabazi dituzte. Sailkapen buru dira. Aurreko asteburuan, gainera, Ohorezko mailatik jaitsi berria den Bera-Bera taldeari irabazi zioten ordiziarrek, 6-9.

Saskibaloiari dagokionez, negargarri. Burua ezin altxaturik dabilta Sergio Salamancaren mutilak. 3 partidu jokatu eta hirurak galdu. Irudi nahiko kaxkarrak erakutsi dute orainarte gainera.

Aitor Calvillo

ORDIZIA
AUTO-ESKOLA

Aita Urdaneta ☎ 88 72 76



GOITGI
OKINDEGIA

Ogigintzan onenak!

Etxezarreta z/g
ORDIZIA ☎ 160501

- ◆ Egurrezko labean egindako ogi gozoa
- ◆ Opil finak
- ◆ Eguneroko ogia
- ◆ Ogi bereziak
- ◆ Ogi artisauak

Barandiaran Taldea,2
ZALDIBIA ☎ 880737



- Mediku akupuntorea
- Pisuaaren kontrola
- Estetiziena

Santa Maria, 8 ☎ 88 12 11
ORDIZIA



Kale Nagusia, 11
☎ 88 93 17 ORDIZIA



Milagrosako ikasleak, 1974an

Rosa Goitiak ekarri digu argazkia. Ordiziako Milagrosa ikastetxean 1974an ateratakoa da. Argazkikoak 1968an jaiotakoak dira.

Atzeko ilaran: Mari Flor Izquierdo, M. Karmen Aneas, Jesus Argaiz, Yolanda, Mertxe Cendon, Felisa Agirezabala, Jose M. Rodriguez, Jose Miguel Nieto, Gema Gamez, Rosa Goitia, David Olano, M. Karmen Lopez eta Blanca.

Bigarren ilaran: Maite Villar, Amaia Carazo, Mitxel Etxeberria, Rosa Mendizabal, Juango Usabiaga, Victor Arze, Mitxel Cuadrado, M. Paz Lopez, Mari Mari Sainz, Juan Luis Aranburu, M. Cruz Sanchez, Ana Rosa Castander, M. Jose Fernandez eta M. Carmen Cabezas.

Hirugarren ilaran: Ezezaguna, Inmaculada Chaves, Rakel Muñoz, Esperanza Arruabarrena, Sabin Ugartemendia, Florencio Reguero, Ana Aizpurua, Ana Alcalde, Enrique Alonso, Conchi Pinto eta Ana Belen Iruariz.

Lurrean eserita: Matellanes, Benedicta Boyero, Arantza Zubizarreta, Francisco Rebolledo, Tomas Jimenez, Imanol Juanes eta Arantzazu Rubio.

"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35	Elosegi, 14	Sta. Maria, 19
☎ 88 77 58	☎ 88 72 79	☎ 16 00 44
BEASAIN	LAZKAO	ORDIZIA

TOYOTA
GOIERRI AUTOAK



TOYOTA CARINA E
2.150.000 pezetatik

3 URTE
GARANTIA

24 ORDU
ASISTENTZIA

ORDIZIA

☎ 88 20 05 - 88 10 73



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 88 87 02
BEASAIN

BEASAINGO 1997ko UDAZKEN KULTURALA

Loinazko San Martinen heriotzaren 400. urteurrena

Urriak 24

12.00etan: Igartzako ibilbide eta seinaleztapenaren inaugurazioa, bisita gidatuarekin. Igartzako Jauregian.

20.00etan: Aizkorri Mendizale Elkartearen diapositiba emanaldia.

Urriak 25

10.00etan: Igartza parkean eta San Martin Baselizaren inguruan **HAURRENTZAKO PARKEA**. Barrendain Plazatik "Txutxu" tren irtengo da. 11.00etan marrazki tailerra. 12.00etan magia ikuskizuna. 16.00etan jokuak eta "La Compañía"ren emanaldia. 18.00etan pailasoen emanaldia.

Urriak 26

8.00etan: Ezpeletxe-Mondarrainera mendi-irteera.

9.00etan: VI. AIRE ZABALEKO PINTURA-LEHIAKETA Arako mihise zigilatze hasiera Kultur Etxean. 13.30etan lanen aurkezpena. 18.30etan sari banaketa eta 19.00etan erakusketaren inaugurazioa Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan.

9.00etan: BEASAINGO VI. DIAPOSITIBA RALLYrako izenematea eta material banaketa Beasaingo Udaletxean. 13.00etan lanen aurkezpena.

10.00etan: **HAURRENTZAKO PARKEA** Igartza Parkea eta San Martin Baseliza inguruan. 11.00etan zirko tailerrak. 16.00etan "La Compañía"ren emanaldia. 18.00etan dantzaldia.

Urriak 27

9.00etan: Argazkigintza Ikastaroan izenemateko epea zabaltzen da. Ikastaroa Urriak 28an hasiko da.

16.00etan: Magia-ikastarorako izenematea. Ikastaroa Azaroak 3, 4, eta 5an izango da.

19.30etan: Usurbe Antzokian **BEASAINGO PAPERAK 6.** zenbakiaren aurkezpena: Martin Mendizabal Mujikaren "San Martin Igokundekoa, Loinazkoa eta Amunabarrokoa: gipuzkoar ezezaguna".

Urriak 28

9.00etan: X. ERREZIL SAGAR ETA POSTU DOTORETASUN Lehiaketa Loinazko San Martin Plazan.

Urriak 29

17.00etan: Bideo-emanaldia Ezkiaga Auzo Etxean.

19.00etan: Diapositiba emanaldia: Amaia Elosegiren "Nepal-en aurpegi ezkutua" Batzarre Aretoan.

22.30etan: Kafe-kontzertua: Patxi Kaleko Teide Kafetegian.

Urriak 30

19.30etan: Koldo Bigun egilearen "Eguzkia ezkututzen denean" liburuaren aurkezpena.

20.30etan: "VOCANTUS" suediar abesbatzaren kontzertua Andre Mari Zeruratuaren Parrokian.

JUBILATU eta PENTSIONISTEN KANPAINA



Paregabeko prezioak

MULTIOPTICAS

LORTU EZAZU MULTIOPTICAS-en TRAVEL CLUB-PROGRAMAKO PUNTUAK

Aprobetxa zaitez!

MONTURA+KRISTALAK

7.900

MONTURA+BIFOKALAK

11.900

LENTE MULTIFOKALETAN PREZIO BEREZIAK!!



Eta ordaintzeko orduan, abantaila ugari:

- MULTIOPTICASen kreditu-txartela. Diru barik erosteko modurik errazena.
- Ordainketa 30, 60 edo 90 egunetan atzeratzeko modua izango duzu, batere errekargu barik.

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Ibargarai, 16 Tel. 76 15 75 20570 BERGARA
Juan Carlos Guerra, 1 Tel. 79 29 95 20500 ARRASATE
J. M. Barandiaran Enp. Tel. 88 99 88 20240 ORDIZIA

MULTIOPTICAS EIBAR

Bidebarrieta, 2 Tel. 20 05 22 20600 EIBAR

MULTIOPTICAS ERRETERIA

Pl. de La Esmaltería, 7 Tel. 51 78 11 20100 ERRETERIA

MERKEAGO

aurkitzen baduzu

DIFERENTZIA

ordainduko dizugu

Urriaren 13tik 25era



Vino **CAMPO VIEJO**
Rioja 75 cl. CVC

319



Leche Entera
COMPOS
Brik 1 litro

68



GARANTÍA DIRECTA

Aceite de Girasol
1 litro

119



TVC **BLUESKY BS-3798**

- 14 pulgadas. • Euroconector.
- 90 presintonías.
- Desconexión programable.
- Funciones en pantalla.
- Mando a distancia.

19.900

PRYCA